

Txostena

Haurrenganako Sexu Abusuak Indarkeriak ikusaraziz

2016 / Eraikiz Kolektiboa



Txostena

Hurrenganako Sexu Abusuak Indarkeriak ikusaraziz

2016 / Eraikiz Kolektiboa

Proiektua

“Hurrenganako Sexu Abusuak. Torerantzia 0. Indarkeriak ikusaraziz”

Koordinazioa: Aitziber Bañuelos eta Amaia Castaños

Idazketa: Xabier I. Bañuelos Ganuza

Erakunde bultzatzailea: Eraikiz Kolektiboa

Erakunde laguntzaileak:

Bilboko Udala
BBK

Bilbo / 2016ko abendua



**Lan honen edozein erabilerak iturria aipatzea eskatzen du.*

Aurkibidea

Sarrera	7, orr.
Metodologia.....	7. orr.
Kokapena	8. orr.
Argibide markoak	9. orr.
Indarkeria gure jendeartean	9. orr.
Patriarkatua eta familia eredia	10. orr.
Sexualitatea kontrolerako estrategia bezala	11. orr.
Haurren sexualitatea	11. orr.
Adingabea eskubide subjektu bezala	12. orr.
2016 Txostena	12. orr.
Gogoeta orokorrak	12. orr.
Faktoreak	16. orr.
Faktore estrukturalak.....	16. orr.
Arrisku faktoreak	18. orr.
Esparruak.....	19. orr.
Beste indarkeriekiko harremana	19. orr.
Hurtzaroarekiko begirune soziala	20. orr.
Arazoaren ikusaraztea: eremu pribatutik publikora.....	22. orr.
Ikusarazteak	22. orr.
Ikusarazteko arrazoiak	22. orr.
Isiltasunaren zergatiak	23. orr.
Noren mesedetan doa isiltasuna	25. orr.
Detekzioa	26. orr.
Nori dagokio erantzukizuna	27. orr.
Biktima	28. orr.
Familia abusuaren testuinguru bezala	29. orr.
Administrazio publikoak	29. orr.
Justizia	30. orr.
Komunikabideak.....	34. orr.
Hezkuntza	36. orr.
Prebentzioa eta jardunbidea	37. orr.
Bibliografia	40, orr.
Eranskina. Solas gida	41. orr.

Sarrera

“Hurrenganako Sexu Abusua – Eraikiz 2016 Txostena” adingabeengan gauzaten den indarkeria mota hau ahalbidetzen duten faktoreen inguruan arakutzen duen ikerlan kualitatiboa da. Hurrenganako Sexu Abusuaren (aurrerantzean HSA) eta honen ondorioen prebentzio, hautemate, esku-hartze, judizializazio, sozializazio edo kudeaketan parte hartzen duten profesional talde esanguratsu batek egindako sakontasuneko analisisa izango du oinarri.

Eskuragarri dauden ikerketen eta eremu honetan lan egiten duten profesionalak metatutako esperientziaren arabera, HSAk gertaera ezagutueta oinarritutako estatistika ezberdinetan normalean azalarazten diren kasuak baino ugariagoak dira. Abusu honek duen ezaugarri esanguratsuenetariko bar, alegia, bere opakutasuna eta bere inguruko datu errealak lortzeko dagoen berezko zailtasuna da. Parte hartzen duten faktoreak -txostenean islatuta ikusiko ditugunak-, hain sailtzen du bere aurkitzea zein aurre egitea, adituek iceberg erraldoi baten punta besterik ez dugula ikusten baieztatzeraz daramatzala.

Horrela ere, kalkulatu da Europa mailan, gutxienez bost haurretatik batek jasan duela nolabaiteko indarkeria sexuala (Europar Kontseiluaren, 2010, hurrenganako sexu abusuaren kontrako kanpainaren arabera). Salamancako Unibertsitateko Sexualitatearen Psikologian katedraduna den Félix López Sánchezen ikerketek ontzat ematen dute ratio berau Estatu Espainolari dagokionez, non gutxienez emakumeen %23ak eta gizonezkoen %15ak HSAren biktima izan diren. Estatu mailan biztanleria orokorrean hartuz egin den prebalentziako ikerketa bakarra da. EAEn 1995. urtean De Paul, Milner eta Múgican egindako ikerketa daukagu, zeinean islatzen den gizonengan %9,7ko eta emakumeengan %14ko prebalentzia UPV/EHUko unibertsitate populazioari dagokionez.

Arazoaren tamainari dagokionez garrantzi berdineko hiru faktore gehitzen zaizkio. Lehena bakarrik HSA kasuen %2a soilik ezagutarazten direla abusua burutzen ari den bitartean. Bigarrena biktimek jasandako minaren ondorioei dagokie, momentuan bertan eta epe luzera nabaritutako diren ondorio bortitzak¹; pertsonaren egituratze eta garapenean eragina izango dutenak eta, behin gaitza atzemanda, bere birgaitzerako tratamendu luzeak beharko dituenak. Eta hirugarrenik, azken hamarkadetan atzeman den adingabeekiko beste adingabe nagusiagoak burututako abusuak.

Guzti honek, beraz, berebiziko larritasuna duen auzi baten aurrean gaudela adierazten digu. Orokorra eta aldi berean ezezaguna den arazo erreala bat da, ondorio latz eta epe luzekoak dituenak, pertsonen garapenean eta duintasunean eragina dutenak, biktimak buru oreka galtzean eta birbiktimizazioaren aurrean bulnerableagoak bihurtzen.

Gauzak horrela, txosten honek ondorengo helburuak betetzea bilatzen du:

- 1.- HSAren errealitatea ikusarazi.
- 2.- Jendartean hau ematea errazten eta mantentzen dituen faktoreak detektatzea.
- 3.- HSAren arazoaren ulermenerako argumentario baten sorreran aurrera egin.
- 4.- HSArekin lotura duten eremu ezberdinetan esku-hartzen duten profesionalentzako laguntza izan.
- 5.- Etorkizunean eman daitezken ikerketetarako oinarri bat ezarri.

Aurreikuspen eta helburu hauek kontutan hartuta, txostenaren helburua ez da bakarrik HSAren ikusarazteari leiho bat irekitzea, baita bere ezaugarrien eta behar duen lanketa motaren ideien trukaketari eta esku-hartze eremu ezberdinetako behar partekatuen inguruko bateratze lana egitea ere. Gure jendarteko kolektibo zaurgarrienari eragiten dion arazo larri honi aurre egiteko lankidetzarako osagarritasuna bilatzen duten esperientzien bidegurutzearen emaitza da.

*1. %60 eta %80aren artean sintomatologiaren bat pairatzen du abusuak jasan eta hurrengo 2 urtetan (Lopez 1995) eta epe luzera sentiarazten direnak, %50 batek uste du abusuak eragin txarra izan dutela bere garapenean, %77,6 direlarik nolabaiteko sintoma kliniko agertzen dituztenak epe luzean (Herman et al, 1986).

Metodologia

Txosten hau egiteko erabili dugun metodologia izaera kualitatiboa du. Hiru tresna ezberdinetan arazten da: dokumentazioa, sakontasuneko elkarrizketak eta hiru mahai-ingurutan oinarritutako hausnarketa jardunaldiko ekarpenen bilketa.

a.- Dokumentazioa. Proiektua txertatzeko marko teoriko bat eraikitzeke oinarri bezala erabiliko dugun dokumentazio bilketa eta analisia. Iturburu ezberdinetako eta arazo hau zuzenean, edo honekin lotutako beste batzuk, lantzen dituzten ikerketa, eskuliburu eta lanak erabili izan dira.

b.- Sakontasuneko elkarrizketak. 18 profesionalen parte-hartzea izan duten 16 aurrez-aurreko elkarrizketa burutu dira, hauek jatorri profesional ezberdinak izan dituztelarik, alegia, ikerkuntza, hezkuntza, epailetza, auzitegiko medikuntza, zuzenbidea, komunikazioa, mugimendu sozialak, psikologia, sexologia, gizarte esku-hartzea, giza eskubideak eta administrazioa. Euren arloko pertsona nabarmentzat hartu dira eta maila ezberdinetan HSAreko lotura dutenak. Ondorengo irizpideak jarraituz hautatuak izan dira: ibilbide profesionala, formazioa, esperientzia profesionala eta kudeaketa erantzukizuna. Hautaketa proiektuaren koordinazioaren esku egon da.

Elkarrizketarako parte-hartzaileei aurretik emandako solas-gida bat proposatu da. Bere xedea elkarrizketa gaiak estandarizatzea zen, helburu bikoitz batekin: eduki komunen minimo bat izango zutela bermatu (pertsona bakoitzarekin bere arloko gaietan gehiago sakonduko litzatekeenaz gain); eta gai ezberdinen mailaketa bat egitea, horrela posible izan zedin argudio ezberdinen jasotze koherente eta eraginkorra. Gida egituratu duten goiburua ondorengoak izan dira: 1.- HSAren jatorria; 2.- Haurtzaroaren paper soziala; 3.- HSAren ikusgarritasuna; 4.- Familia; 5.- Jendartea eta erakundeak; 6.- Justizia; 7.- Komunikabideak; 8.- Hezkuntza; eta 9.- Prebentzioa eta jardunbidea.

Elkarrizketetako parte-hartzaileak honako hauek izan dira (elkarrizketak egindako ordena kronologikoan):

- Amaia Castaños (Psikologoa, filosofian doktorea eta UPV/EHUko irakaslea)
- José Ignacio Arévalo (Bizkaiko Probintzia Auzitegiko 6. sekzioko Magistratua)
- Felipe Loza (Bigarren hezkuntzako irakaslea)
- Begoña Yebra (Radio Euskadiko kazetaria)
- María Jesús Goikoetxea (Psikologoa eta etikan espezialista, Deustuko Unibertsitateko irakaslea)
- José Ramón Landarroitajuregi (Sexologoa eta Valladolideko Universidad Europea Miguel de Cervanteseko Sexologia Sustantiboko Masterraren zuzendaria)
- Juan Calparsoro (EAE-ko Auzitegi Nagusiko fiskalburua)
- Monika Hernando (Biktimen eta Giza Eskubideen Eusko Jaurlaritzako zuzendaria)
- Ana Eugenia Abasolo (Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakunde (AMEE) auzitegiko medikua)
- Ramón Bustamante (Herri Irratiko kazetaria)
- Agurtzane Ortega (Abokatua, zuzenbide penalean aditua)
- Consuelo Alonso (Bizkaiko Foru Aldundiko Haurren Zerbitzuko koordinatzailea)
- Alazne Medinabeitia (Bizkaiko Foru Aldundiko Haurren Zerbitzuko arduradun teknikoa)
- Maite Calleja (Agintzariko Gizarte Aholkularitza Unitateko arduraduna)
- José Ramón Elizondo (Agintzariko Teknikaria, babesgabetasun eta familia barneko sexu abusuetako esplorazio psikologikoan espezializatua Bizkaiko Foru Aldundiko SEIP programan)
- Azucena García (Save the Childrenen komunikazio arduraduna)
- Ainhoa Subinas (Bigarren hezkuntzako irakaslea)
- Amaia Bakaikoa (Psikologoa eta sexologoa)

Elkarrizketak, pertsonalak badira ere, parte-hartzaileek botatako tesia, perspektiba, arrazoi, analisi eta iritzi ezberdinak hartuz argumentario bateratu bat eraikitzeke oinarria izango dira. Inola ere ez dira egiletzak ezta elkarrizketak modu indibidualizatuan aurkezten.

c.- Hausnarketa jardunaldia. Burututako jardunaldia irekia izan da, baina bereziki HSArekin erlacionatutako arloetako profesionalei zuzendua. Hiru mahai-inguru izan ditu ardatz, esku-hartzea, justizia eta komunikabideak, aurretik sakontasuneko elkarrizketetan parte hartutako adituetako batzuek osatuak. Erakusketak, tailerrak eta eztabaidak burutu dira ehun pertsonatik gorako parte-hartzearekin. Sortutako tesi eta ondorioak ere txosten honek barneratzen ditu.

Kokapena

HSA haurtzaroaren kontrako tratu txar mota bat da. Garrantzitsua iruditzen zaigu, beraz, tratu txar bezala ulertzen dugunaz lehen aipamen bat egitea. Berariazko zailtasuna duen gaia da, bai abusua zein tratu txarra kontzeptuen zehaztapena historian zeharko bilakaera izandakoak baitira. Horrez gain, bere kontzeptualizazioa haurtzaroaren, tratu txarren, zein sexualitatea edo haur sexualitatea bezalako bestelako kontzeptuen eraikuntza kulturalarengatik baldintzatuta dago.

MOEren arabera, "haurrenganako tratu txarra 18 urtetik beherako adingabeek pairatzen duten abusu edo zabartasuna bezala definitzen da, ardura, konfiantza edo botere harreman baten baitan ematen den edonolako tratu txar fisiko edo psikologikoa, abusu sexuala, zabartasuna, esplotazio komertziala, edo haurraren osasuna, garapena, duintasuna edo biziraupena kaltetzen duen edo kaltetu dezakeen bestelako edozein hartzen dituelarik". Indarkeria matxistaren egoeran, familia unitatearen parte izateagatik hartzen duena ere hartzen da haurrenganako tratu txar bezala.

Haurren eskubideei buruzko hitzarmenak, 19.artikuluaren, haurrenganako tratu txarrez mintzo da "kalte fisiko nahiz mental, arduragabekeria, tratu txar edo gehiegikeria" bezala.

Azkenik, UNICEFek zentzu honetan egiten duen ondorengo ekarpena gehitzen dugu, "haurrenganako tratu txarren eta abandonuaren biktimak 18 urtetatik beherako haur zein nerabeak biltzen dituen biztanleriaren segmentua hartzen du, tarteka edo egunerokoan indarkeria fisiko, sexual edo emozionala pairatzen dutenak, familian edo gizarte erakundeetan. Tratu txarra utzikeria (abandoua kasu) edo eskubide indibidual zein kolektiboen ezabapen edota urratzea bezala burutu daiteke"

Haurrenganako tratu txarrak adierazpen anitz har ditzake faktore anitz elkar gurutzatzen diren prozesu batean, tratu txar mota ezberdinak modu konbinatu eta sekuentzialean ematen diren errealitate konplexuak sortuz. Horrela, HSAk ezaugarri propioak dituen arren, bestelako tipologia guztiekin batera aztertu beharra dago.

HSA zer den zehazteko, National Center of Child Abuse and Neglectek (1978) ematen duen definizioa aipatuko dugu: "Pertsona adingabe eta pertsona heldu baten artean ematen diren kontaktu eta interakzioak, zeinetan helduak adingabea erabiltzen duen bere burua, haurra bera edo hirugarren pertsona bat sexualki estimulatzeko. Abusua 18 urtetik beherako beste pertsona batengatik burutua izan daiteke bien arteko adin tartea nabaria denean edota adingabe erasotzailea bestearekiko botere edo kontrol egoera batean aurkitzen denean".

C.H. Kempek, Abusuak eta Tratu Txarrak Jasan Ditutzen Haurren Prebentziorako Nazioarteko Sozietatearen (1978) sortzaileak, horrela definitzen du HSA: "Pertsona adingabe edo nerabe adingabe baten inplikazioa pertsona helduek burutzen dituzten ekintza sexualetan helduen asebetetze sexuala helburu dutelarik, pertsona adingabeak heldugabeak eta dependienteak izanik, beraz, jarduera horien izaera erradikala ulertzeko gai ez direnak ezta inolako baimentzea emateko gaitasunik gabeak. Jarduera horiek bere adinerako eta garapen psikosexual mailarako desegokiak dira eta presiopean inposatuak dira, indarkeriaz edo sedukzioz, eta familia barneko rolei dagokieneko tabu sozialak urratzen dituzte".

Cartón eta Cortesen (2000) arabera, nagusikeriari lotzen diren abusuak zehazteko bi oinarritzko irizpide ezartzen dira:

1.- Hertsadura. Erasotzaileak duen botere egoera erabiltzen du adingabearekin sexualki elkar eragiteko. Ere mu guztietako profesionalek, judiziala barne, kontutan izan beharko lukete, HSA

kasuetan, badaudela haurrengan indarkeria beraren erabilpena baino ondorio latzagoak izan ditzaketen beste hertsadura mota asko.

2.- Adin asimetria: Erasotzailea biktima baino nabarmen nagusiagoa da eta ez du zertan heldua izan behar. Enrique Etxaburua eta Paz del Corral (2006) bezalako autoreek kontzeptua bera zabaltzen dute biktimaren eta erasotzailearen arteko garapen fisiko, heldutasun maila, kognitiboa zein sexuala barnebiltzen. Adingabearen erabakitzeko gaitasuna, askatasuna eta autonomia gutxitzen duten faktoreak, alegia.

Horrela, HSA maila ezberdinetan adierazi liteke:

1.- Sexu abusa: baimenik gabe eta indarkeria edo larderia barik burutzen den edozein kontaktu fisiko, kopulazioa tarte edo ez.

2.- Eraso sexuala: baimenik gabe eta indarkeria edo larderia tarteko burutzen den edozein kontaktu fisiko, kopulazioa tarte edo ez.

3.- Exhibizionismoa: kontaktu fisiko barik.

4.- Haur esplotazio sexuala: abusotzailea helburu ekonomikoa du, prostituzioa eta pornografia barne. Haurren sexu merkataritzarekin bateratu ohi da, modalitate ezberdinak existitzen direlarik:

- haur sexu esplotaziorako heldugabeen salerosketa;
- haur sexu esplotazioaz gozatzeko turismoa
- haur prostituzioa
- haur pornografia

Txosnen honi dagokionez, HSA sexualitatearen erabilpen injustu eta gehiegizkoa hartzen du. Pertsona adingabe eta pertsona heldu baten artean sexu harreman egokirik existitzen ez dela islatzen du, horrelako edonolako jardueraren erantzukizuna, bakarrik eta erabat, pertsona helduaren gain erortzen delarik.

Argibide markoak

Indarkeria gure jendartean

Harremanak, pertsonalak, sozialak eta komunitate-harremanak, indarkeriak ardatzen dituen jendarte batean bizi gara, ezberdinkeria eta haustura soziala sortzen duten harremanak. Indarkeria da gatazkak konpontzeko erabiltzen den oinarriko estrategia. HSA eta haurren kontrako indarkeria ezin da gizakien, komunitateen eta estatuen harremanak zeharkatzen dituzten beste indarkeria zuzen guztiengandik aldentu. Beraz, ezin dugu HSA eta haurren kontrako indarkeria ulertu beste indarkeria horien ezaugarriei eta euren arteko harremanei arreta eman gabe; ezin diogu bere erazpenari heldu egiturarekin eta indarkeria kulturalen islatzen den subjektibitate kolektiboarekin duen loturari heldu barik.

La Parra eta Tortosaren (2003) arabera, indarkeria estrukturala kontzeptua "aplikagarria da estratifikazio sozialaren prozesuen ondorioz, hots, indarkeria zuzenaren beharrik gabe, oinarriko beharren (biziraupena, ongizatea, nortasuna edo askatasuna) asebetetzea kaltetzen den egoerei. Indarkeria estrukturala kontzeptua bi talde sozial edo gehiagoren arteko talkara eramaten gaitu (normalean genero, etnia, klase, naziotasun, adin edo halakoetan oinarrituta) zeinean errekurtsuen banaketa, irizpen edo erabilera gaitasuna sistematikoki talde hauetariko baten alde eta besteen kaltetan joaten den, estratifikazio sozialaren mekanismoaren ondorioz".

Indarkeria kulturala bezala ulertzen dugu, Galtungen hitzetan (1989), "indarkeria zuzen edo estrukturala justifikatzeko edo legitimatzeko erabili daitezken kulturaren alderdi ezberdinak, gure izatearen alderdi sinbolikoa (erlijioan, ideologian, hizkuntza eta artean, zientzia enpiriko eta formaletan -logika, matematika- gorpuztuak).

Indarkeria mota hauek, estrukturala eta kulturala, ikusezintasunean mantentzen dira. Antzemateko, identifikatzeko eta borrokatzeko sailagoak dira. Txosten honetan ez dugu indarkeria zuzenean sakonduko, berezko abusu ekintzan, baizik eta helduak orokorrean, eta gizonezkoak bereziki, pribilegio eta gailentasun egoeran jartzen dituzten oinarri ideologiko, kultural eta sinbolikoetan, beren abusu ekintza zilegitzen dituztenak. Tratu txarrarekin, HSAekin, bere nagusitasunarekin eta legitimatzearekin lotutako faktore sinboliko eta kulturaletan sakontzera goaz. Haurren babesa eta familien ongizatearekin zein pertsona ororen garapenarekin lotutako eta jendartea ardazten duten alderdi eta egitura sozialekin erlazioatuko ditugu.

Patriarkatua eta familia eredu

Gerda Lermeren (1986) hitzetan, patriarkatua, zentzu zabal batean, “familiako emakumeen eta haurren gaineko gizonezkoaren nagusitasunaren adierazpen eta instituzionalizazioa da, nagusitasun hori gizarteko emakume guztietara zabaltzen delarik”.

Patriarkatuak familia eredu bat aurkezten digu, zeinean heteronormatibitatea, gizonezkoaren hierarkia eta harreman loturen eraikuntza, jabetzan oinarritzen diren eta zeinean pribatutasuna lege den. Familia ernegatu eta traizionatu ezin den, maitasun, ikaskuntza eta elkartasun komunitate banaezin bezala aurkezten zaigu, bere idealizazioan laguntzen duen balio goren bezala. Horrela, maitasuna ugaltzerekin ezinbestean lotuta dagoenaren ideia naturalizatuz: familia batean jaiotze hutsagatik bere kideak maitatu behar ditugu baldintzarik gabe.

Familia eredu honek balio, tradizio, sinismen eta ohitura zaharretan oinarritzen da, zeinak indarkeria mota zehatz batzuk toleratzen dituen, batipat familia gunean boterea daukanarengandik erabilia dena, emaztearen obedientzia eta sumisioa arau bezala hartuz. Adingabeak aitaren propietate bezala ulertzen dira, eta euren gaineko eskubide guztiak bereganatzen ditu. Adingabea ez zen inolaz ere eskubide subjektu, are gutxiago ez zen erabakiak hartzean kontutan izaten. Oraindik dirau guraso-agintea familia harremanak antolatzen dituen instituzio juridiko bezala.

Nahiz eta legalki errealitate hau aldatu den, gure imaginario kolektiboaren azpitik datozkigun balioek, adingabeak aitak ezartzen duen familia ordenaren azpian jartzen dute. Ezta eremu profesioletan ere ez da adingabeen eskubideek helduen eta familia instituzio bezala duten eskubideen gainetik jartzearen behararen ideia ulertzen.

Barudyren arabera, patriarkatuaren ikuskerak bere isla du abusatzen duten helduen gehiengoa gizonezkoak izatean, ia denak euren gain duten eskubidearen konbentzimenduan. Biktima, ideologia berean oinarrituz, ezinezkoa luke abusu horri aurre egitea, ez eta salatzea ere. Bestalde, interesgarria litzateke adingabearen babesaren hausnarketan sakontzea, familiaren balioak eta hauen ikusezintasunak duen efektu psikologikoan, baldintzarik gabeko maitasunaren eta indarkeriarekiko tolerantziarenak, emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunean oinarrituriko heziketarenak, mendetasun eta sumisioarenak... eta guzti horren eragina emakume eta gizon helduengan eta, familia eremuan, hurrenganako sexu abusuaren duena.

San Marínen iritziz (1999), familiaren anibalentziak paradoxa izugarriaren barnean jartzen du instituzio bera: oinarritzeko eragile sozializatzailea izanik, maitasun eta biolentzia erakundea da. Gauzak horrela, lau mito ezartzen ditu honen inguruan: 1/ tratu txarrak egotea arraroa da; 2/ biolentzia eta maitasuna ez dute baterako existentzia familiaren barnean; 3/ indarkeria familiarra soilik ematen da klase sozial, ekonomiko eta kultural baxuko familien barnean; 4/ hurrenganako tratu txarra soilik patologiadun pertsonen artean ematen da. Horrela, diosku autoreak, familia izugarritzeko zaurgarritasun eremua dugu adingabeentzat, hauek helduengandiko zaintzaren erabateko beharrea daudelarik. Tratu txarrarekiko zein sexu abusuarekiko erabateko inpunitate eremua da familia, barnera iristeko oso saila den espazioa izanik eta zeinean pribatutasunaren balioa adingabeen babesaren balioaren gainetik ezarrita dagoen; ikasitako babesgabetasunaren barneratzeko eremu bikaina. Heldugabeek baldintzarik gabe maitatzen ikasten dute, jasotzen duten edozein tratu toleratza, eta gozatzen dutena zein pairatzen dutena euren kontrolpean ez dagoela ere. Ez da euren aukera. Jaiotzaz egokitu zaie eta determinantea da euren bizitza garapenean.

Sexualitatea kontrolerako estrategia bezala

Munduko Osasun Erakundearen arabera horrela definitzen da sexualitatea: “Bizitzan zeharko gizakiaren oinarriko aspektu bat. Sexua, generoaren, erotismoaren, plazeraren, intimitatearen, ernalketaren eta sexu orientazioaren papera eta nortasuna hartzen ditu. Pentsamenduaren, fantasiaren, desiraren, sinesmenen, jarrerren, balioen, praktiken, paperen eta pertsonen arteko harremanen bitartez bizi eta adierazten da. Sexualitateak dimentsio guzti hauek hartzen ditu, hala ere, ez dira denak bizitzen eta adierazten beti. Sexualitatea faktore biologiko, psikologiko, sozial, ekonomiko, politiko, kultural, etiko, legal, historiko, erlijioso eta espiritualen interakzioaren eraginpean dago”.

Egun, ideologia heteronormatiboa gailentzen denaren oinarria hartuz, sexualitatea ugalketari lotuta eta arauaren eta jarrera gaitzesgarrietarako faktore bezala ulertuta. Kultura honetan, zeinean sexualitatea mundua eragiten duen eta logika ulertzen den eta arrazoiaren kontrolari ihes egiten dion, kontrol zorrotz eta zehatza lortzeko sekulako esfortzuak egiten dira. Ukazioa, ezkutatzea eta errepresioa tarte. Sexualitatea ez da existitzen, informazioa ez da mugitzen, beraz, ezin da norbanakoak bere kabuz autonomoki kudeatu. Mitoa, sinismen faltsuak eta beldurra dira nagusi. Eta testuinguru honetan aurkitzen da emakume eta gizonen eraikuntza izaki sexuatu bezala.

Gizonezkoan sexua lehentasunezko balio bezala ezartzen da, bere maskulinitatea eta bestelakoekin harremanetzeko modua zehaztuko du. Eta berdintasunik, errespeturik eta enpatiarik gabeko sexualitatea sortuko du, lehentasuna bere plazer eta subjektu sexualki aktiboa izatea delarik, erreferentzia taldearen aurrean bere balioaren bitartekoa izanik. Halaber, agresibitatea hartzen du ezaugarri giza, bere inpultsu sexuala kontrolatzeko gaitasuna ere ukatzen zaiolarik, horrela justifikatuz indarkeriaren bidezko inposizioa eta besteen gorputzen erabilera. Bere aldetik, emakumearen sozializazio sexuala amatasunaren eta zaintzaren, hauskortasunaren, enpatiaren eta inpultsu eta desiren ukapenaren inguruan ematen da, bestearen desiren eta kanpoko arauen pean baldintzatutako autoestimuan.

Bestalde, familia barnean, sexualitatea liskarrari eta beldurrari lotuta dago, ez da hitz egiten, ezkututzen da. Seme-alabentzako gurasoak izaki sexugabeak dira. Seme-alabak sexuaren arriskuez ohartarazi beharreko pertsonak besterik ez dira. Familia sexualitatea mesprezatzeko eta sexu aniztasun ez heteronormatiboa erreprimitzeko gunea besterik ez da.

Haurren sexualitatea

Aurretiaz esandako guztiagatik, ondorioztatu dezakegu adingabeek izaki sexugabetuak direla, generoarekin harremanaz eta emakume zein gizonezko bezala egiten duten eraikuntzatik harago. Esan dugun bezala, sexualitatea liskar negatiboarekin eta beldurrarekin lotzen da. Horregatik sexualitatea ukatzen da eta honekin lotutako heziketa eremu informalerara delegatzen da (lagunak, mass media...) edo, gehienez jota, eskolara. Sexualitatea, berez, ez da pubertarora arte lantzen, normalean ugalketari lotuta eta emakumearen eta gizonaren aldetik funtzio ezberdina duen bizitza fase bat bezala, zeinean emakumea diskriminatzen den eta bere eskubide sexual zein ugalketa eskubideak urratzen diren. Hazten gara, gainera, emakume zein gizonen arteko harremanak beti sexuak ardaztuta ematen direla sinetsiz.

Heziketa afektibo-sexualaren gabeziak eragin berezia du adingabeengan, haurtzaroan batez ere, gustatzen zaiena ulertu, adierazi edo mugatzeko gaitasunak garatu ez dituen aro batean egonda.

Guzti honi gehitu behar zaio adingabearen hipersexualizazioa, komunikabideen, eta bereziki publizitatearen bidez, adierazten dena. 2001. urtean Gobernu Britaniarreko Hezkuntza Sailak haurtzaroaren sexualizazio eta komertzializazioaren inguruko txosten bat eskatu zuen, Bailey Txostena deitutakoa, alegia. Horretan hipesezualizazio kontzeptuaz ematen duen azalpena zera da: “goiztiarregizat hartzen den adierazpen, jarrera eta janzkeraren sexualizazioa”.

Txostenak haurrak etengabe inguratzen dituzten irudi sexualetaz ohartarazten du, baita haurtzaroaren erotizazioak dakartzan arriskuez. Ikerketa horren arabera, honen biktimak neskatok izan ohi dira sexualizazio prozesu horrek emakumearen kosifikazioarekin duen

harremana dela eta. Horrela, neskatoak objektu sexual bihurtzen dira jarrera zein rol estereotipatuak hartzen baitituzte, euren adinari ez dagozkion rol eta jarrerak. Adingabeak mutikoak, eta batez ere neskatoak, inposatutako sexualitate heldu batez inguratuta agertzen dira. 2007an Amerikako Psikologia Elkarteak izan zen neskato zein mutikoekiko jarrera sexualizatzailea salatu zuena.

Adingabea eskubide subjektu bezala

Espainiak, 1996. urtean, Adingabekoen Babesari Buruzko lehen legea argitaratu zuen. Hau aldatua izan zen 2015ean (Hurtzaroaren eta Nerabezaroaren Babeserako Sistemaren Aldaketarako Uztailaren 22ko 8/2015 Lege Organikoa eta Uztailaren 28ko 26/2015 Legea). Espainiako Konstituzioarekin, Giza Eskubideen Aldarrikapenarekin eta Haurren Eskubideen Aldarrikapenarekin, adingabeak eskubide subjektu bezala aitortzen dituen marko juridiko bat ezartzen da. Gainera, Abokatutzaren Kontseilu Nagusiko lehendakari den Carlos Carnicerrek adierazten duen bezala, "kontutan hartuko den gauzarik garrantzitsuen haurren interes gorenaren izango da".

Hala ere, aurrerapausoak aurrerapauso, adingabeari ez zaio baliorik ematen erabakiak hartzean, ez zaio autonomian hezten. Dependientzat hartzen dugu bere iritzia dagokionez, ondorioz, ez zaio protagonismo ez espazio propioarekin ematen bere harreman eremu ezberdinen eraikuntzan, familia, kideak, gizarte testuinguruak eta komunitatean orokorrean. Guzti honen ondorioz sinismen bat eraikitzen dugu adingabearen, zeinean adingabea bere emozioen adierazpena ukatzera eramaten dugula -batez ere beste pertsonakiko ondoezaren adierazpenari dagokionez-, iritzia emateko eta mugak jartzeko, heldu izate hutsagatik honek duen autoritateari aurre egiteko edo sozializazio eremuko oinarritzko erakundeena (familia, eskola...).

2016 txostena

1.- Gogoeta orokorrak

Fenomeno konplexu baten aurrean aurkitzen gara, tratamendu zailekoa, zeinean informazioa eskasa den, orokorrean uste den baino askoz intzidentzia handiagoarekin, pertsonarengan ondorio sakonak dituen eta bere azterketa eta, emozioen eremutik harago, dauzkan mugak hain sakona den itsaso batean urperatzen direlarik, burutu nahi den edozein azterketa erabat oztopatzen dutela. Parametro hauen azpian kokatzen dira HSAren aurrean elkarrizketatu ditugun pertsona guztiak. Definizio bat baino deskribapen orokor bat da hau, irekia eta zehaztugabea, gai hauskor baten larritasuna eta dimentsioaren ulermena laguntzen duena, zeinaren inguruko zalantza kopurua ziurtasunena bezain handia den. Baita ezadostasunak ere, edo gutxienez, nabarmentzen joango garen eta alderdi zehatzetan ematen diren ikuspegi ezberdinak. Badira, hori bai, parte-hartzaile aditu guztiak bateratu dituen hainbat oinarritzko elementu. Uste dugu gomendagarria dugula hasiera batetik aipatzea ia antolaketa-ardatz bezala, batez ere kontutan izanik akordioa oso eremu ezberdinetatik datorrela, honek izugarritzko balio erantzia ematen diolarik.

Informazio lorpena. Elementu hauetariko lehena datuei dagokio, edo hobeto esanda, datu eskasiari, hurrenganako tratu txarrekin duten benetako dimentsioaren ingurukoak orokorrean eta HSAren inguruko datu ezari bereziki. Ez dago egungo ikerketarik, eta daudenak, nahiz eta metodologikoki zuzenak izan, badituzte hainbat gabezia osatugabeak edo estrapolaezinak bihurtzen dituztenak. Honek behartzen gaitu zenbatezpenen eremu mugikorrean ibiltzera behartzen gaitu. Baina nahiz eta muga hori existitu, elkarrizketatutako kideak, euren esperientzia kontutan hartuta eta hutsegiteko beldurrik gabe, benetan existitzen diren kasu guztien portzentaia txiki bat besterik ez dela ezagutzen; badira gehiago zehazten ausartzen direnak eta ezagutzen den kopuru hori gehienez %10ean kokatzen dutenak.

Portzentaia hau, beraz, zehaztasunez maneiatu behar da. Baina gainera, gizarte zerbitzuetan irekita mantentzen diren kasuak eta epailearen aurrera heltzen diren gertaera gutxiez konposatua dagoelako. Tentuz aztertzen ez bada, lortu genezakeen edozein ondorio ateratzera eramanez gaitzake, soslai oso garrantzitsua bere benetako bolumena islatzen duten kasu

gehienak alde batera utziko lituzkeelako, ondo aztertua izaten ez dena, kasu horiek, ezagutza publikora iritsi gabe beste bide batzuk hartzen dituztelako, edota nahita ezkututzen direlako bere delitu izaera dela eta.

Arazoaren ikusarazteaz geroxeago hitz egingo dugunaz gain, aipatutako informazio gabezia hau bi arrazoiengatik ematen da bereziki: haurrekiko nagusitzen den jarrera paternalista alde batetik eta fenomenoari berari lotuta datozen berezko zailtasunak bestaldetik. Lehenengoari dagokionez sakonago arituko gara geroago datorren atal batean; soilik esan gaur egun arteko ikerkuntza jarduera haurtzaroaren oinarriko beharrekiko lotutakoa izan dela, elikadura, hezkuntza, osasuna, astialdia... eta beste hainbat garapen psikologikoarekin loturikoak, baina alde batera utziz gordinagoak eta gatazkatsuagoak diren beste gaiak, orain dela gutxi soilik ari direnak azalarazten batez, ere sortzen duten alarma sozialak bultzatuta (eskola jazarpena, jazarpen zibernetikoa, haurrari zuzendutako familia barneko indarkeria...). HSAk aipaturiko bigarren talde honetan kokatuko lirateke, oraindik lehentasunezkoak izan ez direlarik.

Beste alde batetik badaude, esan dugun bezala, biolentzia mota hauek bereizten dituzten zailtasunak, batez ere jazoera espazioaren intimitate eremuarengandik eratorriak. Ez da indarkeria publiko edo agerikoa; normalean nabaritasun fisikoak uzten ez dituan indarkeria mota bat da gainera, ondorioa, detekzio arazoak hain dira handiak lantzeko momentua gehienetan biktimaren edo hurbileko hirugarren pertsonen askaeraren ondotik datorrela, beti ere ukapenaren eta errefusaren arriskuarekin. Kanpo detekzioa, beraz eta aurrerago ikusiko dugun bezala, oso zaila egiten da.

Eman ohi den beste oztopo esanguratsua da HSAko kasu asko ezagutzera ematen direla behin urte asko pasa izan direla eta biktima den pertsona jadanik heldua denean. Kasu askotan jakinarazpena beste arazoren baten ondoriozko tratamendu prozesuan gertatzen da, seguruenik abusu gertakari haien ondorioz eratorritako eta horien sintoma bezala agertzen diren beste arazo batzuk. Urruntasun hori oztopo bilakatzen da berehalakotasuna eskatzen duen informazio mota baten lorpenerako. Azkenik, aipatu behar da biktima mutikoa denean ematen den ikusarazpenerako zailtasun nabariagoa. Abusua pairatu dutela onartzeko gizonezkoek jartzen duten harresiak igarogaitzak dira kasu askotan, generoaren gizarte estereotipoak gizonezkoengan suposatzen duten estigmatizazio maila bortitza dela eta.

Beharrezko mailaketa. Elkarrizketatutako kideak bat egiten dute HSAk gutxienez bi kategorien inguruan bereiztearen beharrean: abusu pairatzen den adinean eta zein den hau ematen den testuinguruan. Adinari dagokionez, ezberdindu behar da pubertaro aurretik ematen dena eta pubertaroan eta pubertaro ostean ematen dena.

Pubertaro aurreko adingabeek ez daukate bigarren mailako sexu bereizgarriak erabat zehaztuta, are gutxiago zenbat eta gazteagoak izan. Horregatik, pertsona hauen kontrako sexu abusuak burutzen denean ez du garrantzirik emakumezkoak ala gizonezkoak izan. Erasotzaileak haurrekiko maitemintze eta sexu erakarpenaren inpultsuari erantzuten dio, normalean bestelako edozein irizpide alde atera utziz. Pederastiaren eremuan gaude. Abusua burutzen duenak zaurgarritasunaren eta aukera izatearen irizpideen arabera hautatuko du biktima, berorren sexuak garrantzi gutxi izanik eta bata edo bestearen aukeraketak erasotzailearen sexu orientazioa zehaztuko ez duelarik. Arrazoi honengatik, ez dago alde handirik biktimak izan diren neskato kopuruaren eta mutiko kopuruaren artean, gutxi gora-behera berdina direlarik.

Behin adingabea pubertaroan eta nerabezaroan sartzen denean eta bere sexu bereizgarriak begi-bistako bihurtzen direnean, gauzak aldatzen doaz. Pederastia desagerraraziz doa eta indarkeriak pertsona heldu bati zuzendutakoaren berdina bilakatuz doa. Adingabe baten kontra burutzeak biktimarekiko duen hurbiltasunak ematen duen aukeran eta erasotzaileak biktimarekiko duen gailentasun posizioan, botere abusuaren, oinarritzen dira, ikusiko dugun bezala HSA batipat testuinguru hurbiletan gertatu ohi dira eta adingabearekiko autoritatea duten pertsonengandik ematen dira. Pederastiarekin ere nagusitasunak eta hurbiltasuna edukitzeak funtzionatzen du, baina pubertaroan dauden eta pubertaro ostean dauden biktimetan, neskekiko eta mutilekiko erakartze parekidea desagertu egiten da, emakumeen gaineko abusuaren gehiagotze nabaria emanez.

Aipaturiko bigarren kategoria, HSA ematen den testuingurua, familia barneko eta familiaz kanpoko indarkeriak bereiziko lituzke. Lehena familia barnean ematen dena da, eta intzestu bezala izendatu genezake, pederastikoa izan ala ez. Ukitutako informazio iturrien arabera pubertaroaren aurretik neskato zein mutikoengan inpaktu berdina du eta pubertaroan eta honen ondotik neskak dira gehien pairatzen dutenak. Bigarren familiaren testuingurutik kanpo gertatzen da, baina hala ere adingabearen testuingutu hurbiletan. Pederastian oinarritu daiteke ere, edo ez, baina logikoki intzestuaren kontzeptua desagertuko litzateke. Mutikoenganako abusu kasu kopurua handitzen da, honek ez duelarik esan nahi neskengan baino gehiago ematen denik.

Indarkeriaren karakterizazioa. Izakiak gauzatzen dituen indarkeria mota ezberdinen artean HSA da seguruenik zitalkeria handien gordetzen duenetarikoa. Bada indarkeria mota bat, orokorrean, isilpean mandu ohi dena, oharkabean pasatzen dena eta azalarazten denean bere ikusarazpena eta salaketa sekulako oztopo eta erresistentziak topatzen dituen, bai bere hurbileko inguruan zein, kasu askotan, biktima berarengan.

Indarkeria mota hau hainbatetan inguratzen duten topikoak asko badira ere, ia ez da kalte fisikorik eragiten duen ez indarkeria espliziturik ezta agresibitatearik existitzen; adingabearekiko heldu erasotzaileak burutzen duen sedukzioa ematen da, bere onespena bilatuz, bere baimena eta oniritzi eta, zenbait kasutan, bere konplizitatea ere. Pubertaro aurretik biktima ez da ezta abusatua izaten ari denaz kontziente, kontrakoa, sekretuaren konplizitatearen bidez, oparien eta pribilegioen bidez erositua izaten da, berezia dela sentiaraziz, "hautatua" dela. Eta abusuak min edo kalte fisikorik ez dakarrenez, biktimak plazera senti dezake, estimulu sexualaren ondorio logiko bezala. Hau erasotzailearentzako izugarritzko tresna bihurtzen da, behin lortzen duenean biktimaren elkarlana, onartzea eta gozatzera heltzea, elkarbanatutako erru ereduak ezartzea ere lortzen du. Guzti honek emozionalki aztoratu egingo dute biktima behin kontziente denean eta adin psikosexualki helduago batera heltzean, egoera guztiaren jabe egingo denean, eta egoera horretatik irteteko neurriak hartzerako orduan geldiarazi egingo dute.

Indarkeria adingabe nagusiagoengana zuzentzen denean, nerabe eta gazteei alegia, berau bideratzeko erak anitzagoak bilakatzen dira. Sedukzioaren mekanismoak ere funtzionatu dezakete, baina aipaturiko adin nagusiagoetan komunagoak izan daitezkeen erresistentziak gainditzeko eta apurtzeko helburuz agresibitate maila altuago bat agertzen joan daiteke. Agresibitate honek mailakatzen ezberdinak izan ditzake, erruduntasunaren bidezko menderatzetik mehatxura edo eraso fisikora iritsiz. Baliteke zirrikada alderantziz ematea, adingabearengandik pertsona heldura. Jarrera hau, ez dena oso komuna, eman ohi da bai helduarekiko eta autoritate erreferente horrekiko liluramendu edo nolabaiteko maitemintzearen ondotik, bai aurretiaz jasandako indarkeriaren baten ondorioz pairatzen duen desoreka pertsonalen baten ondorioz. Abusatua izateko seduzitua izan den pertsona adingabeak, sedukzioa eta bere gorputzaren erabilera hartu dezake besteekin harremanak izateko era normalizatu bezala; halaber, bere burua babesgabetasun egoera batean ikusten badu, adingabeak harreman sexuala, bere maitasun edo afektu gabeziak betetzeko era bezala ulertu dezake. Hauek eman daitezken egoera ezberdin askoren bi adibide besterik ez dira, eta adingabearen zaurgarritasuna besterik ez dutenak azaleratzen. Honelako egoeraren batean sexu jardueraren bat burutzekotan heldua da egoera horretaz baliatzen ari dena, abusu eta eraso kasu argia suposatuko lukeena. Pertsona heldua beti da nagusitasun egoera batean kokaturik egongo dena, eta beraz, egoera eta gertakari ororen ardura izango duena.

Denboran mantendutako egoera bat da gainera. Ez da ekintza puntual bat, baizik eta kroniko bilakatzen diren ekintza jarraituak. Horregatik, abusu HSAieraren adinaren arabera, biktimak egoera hori normalizat hartzera eraman dezake, bere bestelako harremanak izateko eredu normal bezala integratzera ailegatuz.

Hau are gehiago indartzen da kontutan hartzen badugu indarkeria mota honen ezaugarrietako bat hurbiltasuna dela. Ematen den gune garrantzitsuena familia da eta, hedaduraz, familiaren inguruko zirkulu kontzentriko hurbilak (familia nuklearra, familia zabala, lagunak). Erasotzaileak izan ohi dira, beraz, adingabearekiko erreferentziazkoak diren bere inguruko pertsona helduak. Kontutan hartzen badugu familia dela sozializatorako lehen ingurua edozein pertsonarentzat, ez da zaila ulertzea biktimak indarkeria mota hau normaltasunez hartzera heltzea gertatzen den lehen estadioetan.

Zentzu honetan espezialista hauetariko batzuen ekarpenak azpimarratu behar dira bizitza maila altuko gizarteetan ematen den indarkeria hurbilekoa izan ohi dela nabarmentzen dutenean; etsaia, esplizituki adierazten duten bezala, hurbil topatzen da beti. Jendarte bat, bere orokortasunean, zenbat eta baketsuagoa izan, gutxiagotzen dena kanpokoek edo pertsona arrotzek gauzatutakoa da. Kalekoa esan dezagun. Baina hurbileko indarkeria bere horretan mantentzen da -mantendu, areagotzen ez denean-, identifikatzeko sailagoa dena, eta tratatzeko ere.

Indarkeria mota honetan azpimarratu beharreko azken bereizgarria tabu sexualarekin duen hain harreman estua da. Indarkeria guztiak nolabait lotzen dira gure gizartean existitzen diren tabu estrukturalekin eta indarkeriaren erabilera bera transgresioa suposatzen du. Baina HSAk berezi bihurtzen duena zera da, sexualitatearekin duten lotura. Eta horrela da sexuarekin lotuta dagoen edozerekin mantentzen ditugun kontraesanekin (bekatua versus naturaltasuna, plazerra versus ugalketa, gorputza versus espiritua, instintua versus arrazoia, pasioa versus arrazoia...), baita haurtzarora bera inplikatzeko duelako (xalotasuna versus botere abusua) eta intzestua ere.

Abusuaren mugaketa. Aurreko puntuarekin estuki lotuta, nabarmentzen da abusua zer den eta zer ez zehazterako orduan existitzen den zailtasun handia. Abusua eraso zuzenaren maila hartzen duen egoera horietan, gutxi gora behera, erraza da mugatzea eta zigortzea. Arazoak agertu egiten dira mugak lausotu egiten diren egoera eta harreman ezberdinen aurrean kokatzen garenean, argitasun falta nagusitzen denean, egoera asko zeinetan mugak ertz zehaztuak ez dituen lerro sakon bat ez diren.

Non bukatzen da kontaktu fisikoaz erakutsitako maitasuna eta non hasten da abusua?, zeren arabera zehazten dugu zer den abusua: ekintza, intentzioak, biak?, eta nola ebaluatzen dugu intentzio ezberdinen jolasa interpretatu ahal izateko jokamolde batek inuzentea dela edo desira sexualaz bultzatua den?, zein adierazle ahalbidetzen digute ondorioztatzera jarrera bat inuzentea edo gaiztoa, egokia edo desegokia den?, zein parametroren arabera?, zein testuingurutan?, eta gogo onez jarduten dela suposatuz, ez dago subjektibitateko espazio bat ekintza baten aurrean posizio etiko bat ezartzerako orduan?, subjektibitate bat, bestalde, posizio hori gizabanako batetik beste batera ezberdina izatea egin ahal duena. Eta zalantza guzti horiek argitu ahal balitezke ikuspegi kontzeptual, teoriko eta legal batetik ere, nola objektibatzen dugu guzti hori norbanako intimitatearen baitan soilik ematen diren tendentzia eta tentsio ez adierazgarrietan erabateko ziurtasunak izan ditagun?

Guzti honi gehitu beharra dago baimentzearen eta heldutasunaren kontzeptuak. 2015ean Estatu Espainiarrak sexu baimentzerako adina 16 urtetan ezarri zuen, 13 urtetan ezartzen zuen aurreko araudia eraberritzean. Dena den, biak dira momentuan momentuko adostasunak eta ez dago argi muga hori unibertsal bezala zehazki ezarri ahal izateko pisuzko argudio psikologikorik existitzen diren. Ez da erreza ere ez onarpenaren mugak zehaztea, benetan kontziente eta autonomoa den, edo zein puntura arte hautaketa libre bat kondizionatzen duten kanpo baldintzez eraginda dagoen ala ez. Eta heldutasunari dagokionez, ez dago zalantza berdinek edo oso antzekoak planteatzeko lekurik? Guzti honek zoru ezegonkor batean ibiltzera eramaten gaitu, arbitrariotasun maila handia duena eta alarma soziala arau legalak ezartzeko irizpidea bihurtuko den beldurraz.

Pertsona abusatua. Kontsultatutako pertsona guztiak bat datoz profilek erabilgarritasunik ez dutela esatean, ez baitira existitzen. Edozein adingabe da abusagarria, bere esku ez dagoen gauza bat izanik, norbanakoaren inongo bereizgarri ez ezaugarriren pean egon gabe, ezta karakteristika pertsonalen menpe. Badira, aurrerago ikusiko dugu bezala, adingabearen inguru hurbilean egon daitezkeen nolabaiteko arrisku faktoreak abusua gerta dadin erraztu dezaketenak, baina ez dira erabakigarriak -ez daramate derrigorrean abusura-, eta ez diote norbanakoaren kalitate edo jarrera pertsonalei erantzuten.

Abusua pairatzera eraman dezakeen baldintza bakarria adingabea izatearena da, eta ondorioz, helduen munduaren beharrean edo berorren erabateko dependentziaren menpe bizitzearena. Abusua pertsona erasotzailearen esku eta bere erantzukizuna da %100ean. Lehendabizi bere joera eta gabezia sexualen menpe egongo da; bigarrenik joera horiekiko adingabe mota batek edo bestek gauzatu dezakeen erakarpina, mutiko edo neskatua izan axola ez duelarik; eta

hirugarrenik helduak horren gain duen boterea -sedukzioaren edo mehatxuaren bidez- eta izango duen abaguneaz.

Pertsona erasotzailea. Erasoa burutzen duen pertsonari dagokionez bat datoz ere profilak erabilera gutxikoak direla baieztatzean. Baieztatu daitekeen datu bakarra da erasotzaileen erabateko gehiengoa gizonezkoak direla, alegia, %90a edo hortik gora joango litzatekeen portzentajea.

Ez da ikusten adibidez HSAen eta buruko gaitzaren arteko inongo harremanik. Egia bada ere, kontsultatutako pertsona ezberdinek nabarmendu izan dutela, edozein indarkeria motatan bezala, sexu abusuetan ere erasotzailearen sexualitatearen integrazio faltarekin lotura izango lukeen nolabaiteko gabezia psikologikoa existitu litekeela. Bere pertsonalitatean gutxi gora behera barneratuta egongo litezkeen gabeziak. Halaber, inpultsuak kontrolatzeko nolabaiteko gabeziak ere egon litezke, edo mugak apurtzearekiko erakarpena. Baina guzti honek ez dakar nahitaezkoan buruko patologiarik eta, gainera, ez da inondik inora kasu gehienetan ematen. Abusuak burutzen dituzten pertsonak buru gaitzen bat pairatzen dutela esatea errealitatera egokitzen ez den topiko hutsa da. Horregatik eurak dira euren ekintzen erantzule, baita burutzen ari diren kalteaz kontziente ez direnean ere, bai kontzientzia ezagatik zein autojustifikazio bezala erabiltzen dutenean ere.

Beste iritzi komun bat izan daiteke erasotzaileak biktima izandakoak direla pentsatzea. Kasu batzuetan eman daiteke egoera hau, batez ere harremanak ezartzeko eredu mota hau naturalizatu den kasu horietan, baina ez da kausa-ondorio harremanik existitzen eta ez da orokorrean ematen den ohiko eredia.

Emakumezkoek burututako adingabeen kontrako abusuak, aurretik esan bezala, gizonezkoek burututakoak baino askoz urriagoak dira. Ematen direnean, normalean, nerabeei zuzendutakoak dira eta ez dira ia ezagutzen pubertaro aurretik dauden adingabeenganakoak ezagutzen. Abusua modu oso leunean ematen da, agresibitate barik eta sedukzio maila oso altuekin. Aditu batzuen hitzetan emakumezkoaren "bateratako-ohian" jartzen da azpimarra. Ez da berez abusu praktika bat, eta ez da horrela hartzen, baina kasu puntual batzuetan baliteke emakumeak sexuarekin eta desirekin lotutako gabeziak asebetetzea bilatzea modu hautemanezin batean.

Maila sozialak. Erabateko akordioa dagoen beste elementu bat hurrengoa da: abusuari dagokionez ez da maila sozialen arteko ezberdintasunik ageri. Ez da sektore batean besteetan baino gehiago ematen, arazo orokortu bat da, ez dira taldekako profilak existitzen. Akats izugarria da pentsatzea abusua klase sozial baxukoan edo formazio eskaseko testuinguruetan gehiago ematen dela. Berrito ere, HSAren gehiagoko edo gutxiagoko intzidentzia lotura handiagoa du adingabearen zaurgarritasunarekin eta babesgabetasunarekin jatorrizko maila sozialarekin baino; zaurgarritasun honek ñabardura gehiegi dauzka kokagunea giza talde batean edo bestean jartzeko eta nahikoak gizarte maila guztietara zabaldua egoteko.

2.- Faktoreak

Ez dago adingabe batek sexu abusuak pairatuko dituenik zehazten duen ezer. Aurretik esan dugun bezalaxe edozein adingabe izan daiteke HSAren biktima. Hori bai, badira hainbat faktore bultzatu dezaketenak sexu abusuak existitzea, bai gizarte adierazpen bezala bai norbanakoengan eragin ditzaketen aldagarri ezberdinak. Hauetariko lehenak faktore estrukturalak deituko ditugunen artean kokatu daitezke; bigarrenak ordea, arrisku faktoreak deituko ditugunak izango dira.

Faktore estrukturalak

Hauetariko lehena haurtzaroak dakarren dependentzia da. Adingabe neska eta mutilak edozein jendarteren alderik zaurgarriena dira eta pertsona helduekiko erabateko dependentzia egoeran aurkitzen dira. Autonomia irabazten doaz adina igotzen den heinean, baina dependentzia hori ez da erabat desagertzen nerabezaroa luze igaro ozterarte, behin heldutasunera helduta, hau norbanako bakoitzean adin ezberdin batean lortzen delarik. Dependentzia hau adierazten duten alderdiak heldutasun hori lortzeko progresioaren arabera ezberdinak izango dira, pubertaro

aurretik erabatekoa izango delarik, eta gutxitzen doaz pertsona hazten joango den heinean. Dependentsia denboraldi horretan zehar, adingabeak babes beharra izango du maila altu batean, helduak direlarik babes horren bermatzaileak. Babes horrek kale egiten duenean, adingabeek dependentsia pean jarraitzen dute, honek kinka larrian jartzen dituelarik erabateko babesgabetasun eta zaurgarritasun egoeran aurkituz helduen jarrera eta portaera ezegokien aurrean. Kasik definizioz, adingabeek, batez ere edin txikienekoek, ez daukate heldutasun psikosexual nahikoa abusu egoera bati aurre egiteko, ez daukate ukatzeko gaitasunik ez aukerarik, ezta laguntza eskatzeko ere, askotan ezta gertatzen ari dena identifikatzeko ere ez.

Bigarren faktorea ematen diren botere harremanak izango lirateke. Heldu-adingabe harremanak asimetriaz zeharkaturik daude, beti ere helduak adingabearekiko duen nagusitasuna oinarri hartuta. Horren egokitasuna orain baloratzera sartu gabe, bada gure jendartearen konfigurazioa zehazten duen berezitasun bat, hierarkizaziora eta bertikaltasunera bultzatzen gaituena. Helduaren nagusitasun horrek bere irudia adingabearekiko erreferentzialtasunezkoa bihurtzen dela esan nahi, eredu, autoritate iturburu. Modu horretan, pertsona helduaren “egiteko ahalmena” berezko legitimitatea hartze du adingabearen hurrean. Normatibotasunaren irudikapen honek estatus hori bere onurako edota bere behar eta desirak asebetetzeko erabiltzen duenean, adingabearen onura eta hazte zein garapen pertsonala laguntzeko erabili beharrean, harreman kutsatu bat eragiten da alde bateko interesaren mesedetan, sexuala kasu honetan: pertsona adingabea, berriz ere, babesgabetasunean erortzen da eta luze mantenduko den abusu baten biktima erraza bihurtzen da.

Hirugarrena patriarkatua izango da. Aurretik seinalatutako botere harremanak egitura patriarkalaren arabera konfiguratu egiten dira gure jendarteetan, zeinean, gizonezkoek, berezkoa duten “egiteko ahalmena” inposatzen duten emakumearen gain, nagusitasun egoera batetik. Patriarkatuak dena blaitzen du, sexualitatea beraz ez dio horri ihes egiten. Gauzak horrela, botere harreman asimetriko bat bezala ulertu beharra daukagu, berdintasun ezan oinarritua, edozer ulertzeko eta edozein jokatzeko arau bezala eredu maskulinizatzailea exijitzen delarik. Eredu hau emakumezkoaren eta honen ondorengoen menderatzeetik harago doa, modu honetan gizon heldua bere pertsonen eta bere gorputzen jabe bilakatzen delarik, baita euren eskubideen kudeatzaile bezala. Horrela harreman sexualak gizonezkoaren desiren lehentasunaz eta besteen gorputzen jabetzarengatik baldintzatuta egongo da, bere “beharrengatik”, bestelakoen desiren eta beharren gainetik jartzen direlarik. Ikuspegi honetatik abitur erreza da beste edozein pertsona, heldua ala adingabea izan, objektu bezala ulertzea, ez subjektu bezala, baita sexuala ere horretarako baldintzak ematen badira. Izan ere, emakume adingabeen kontrako abusuak, batez ere pubertaro osteko emakumeen kontrakoak, emakume helduen kontrako erasoekin pareko mekanismoekin funtzionatzen du.

Laugarrena “haur sexualitatearen paradoxa: ukaziotik hipersexualizaziora” bezala izendatu ahalko genuena litzateke. Haurtzaroaren mundua normalean inguratzen duen bakuntasun kutsuak, adingabeak sexudun izakiak direla ahaztera eramaten gaitu sarri; ez zaie berezitasun hori aitortzen, ondorioz sexualitatea haurtzaroaren parte bat izatetik kanpo uzten dugu. Hau horrela izatearen zergatiak ez ditugu sakon aztertuko, baina bai esan sexuarekin lotutako guztia tabuez gainezka dagoen zeozer izaten jarraitzen duela, ezezkotasunera daramatenak, eta bekatu, lizunkeria, debekua eta perbertsio bezalako kontzeptuetatik askatu gabe jarraitzen duenak, guzti hau helduen subkontziente kolektiboan mantentzen delarik. Eta eremu honetan heldutasunaren kontzeptua indartu nahi da, haurrak buru garbiarekin jaiotzen direlako eta sexuarekiko aurreiritzien samarik gabe. Baina errealitateak diosku sexualitatea gizakiaren berezko alderdia dela, bere adina dela zein delarik. Sexualitatea era mugatuan begiratzeak pertsonaren osotasunaren eremu integratzaile bat bezala ez ikustera garamatza, erreprimitzerak eta ukatzera, edo haurtzaro garaian kontutan ez izatera. Honek akats larri bat egitera eramaten gaitu: normalean kasuistika pertsonalean oinarritutako sexuarekin lotutako helduon esperientzia eta ideiak irakastea adingabeei, askotan gizakiaren sexualitatearen ikuspegi zabal eta neurtu batekin ez datozenak. Baina oraindik ere larriagoa dena, adin txikietatik hezkuntza sexual egoki bat ematearen beharra ikustea galarazten du, beti ere hazkunde fisiko, psikologiko eta emozionalaren garai bakoitzari egokitu beharko litzatekeena.

Baina paradoxaz hitz egin dugu. Esandakoa esan dugun arren, duela gutxienez bi hamarkadetatik hona, atzetik helburu merkantilistak dituelarik, haurtzaroaren hipersexualizazio bat eman baita. Adingabe neska eta mutilak (batez ere neskatok), adinari erreparatu barik,

desira sexueralako objektu bezala erabiliak dira denetariko produktuak saltzeko helburuz. Horrela, haur eta nerabeen sexualitatearekin jolasten da "lolita" kontzeptuaz askoz harago ere doazen ikonoak sortuz. Neskato eta mutikoak eskaintzen dira euren garapenaren estadioetara urrunetik ere egokitzen ez diren, eta helduen topiko sexuarekin lotzen diren, jarrera, tankera eta janzkerarekin. Bat-bateko batean, haurtzaroa itxuraz heldu bilakatzen da sexualitateari dagokionez eta berarekiko desiraren aditasuna berbideratzen da, haurtzaroa ukiezina denaren araua apurtuz. Eta beste alde batetik, sexuala dena infantilizatzen da. Neurritz kanpoko balioa ematen zaio jada, ez gaztetasun itxurari, baizik eta haur itxurari. Ondorioz ume-itxuradun modelook ugaritzen dira eta pubertaro aurretiko sexu bereizgarriak sustatzen dira desiragarri bezala, aingeru-aurpegi edo begiradetatik hasita, genitalen depilazioraino, edo helduen trazu fisikoak desagerrarazi eta haur tankerako trazuengatik aldatzea bilatzen duten ebakuntza kirurgikoak.

Bosgarrena, eta azkena, teknologia da. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak, interneten eta gailu mugikorren garapenak bereziki, abusua aurrera eramateko gaitasun eta aukerak handitu dituzte izugarri, jazarpenarako modu berriak sortuz ere. Adituen iritziz, sarbiderako, pribatutasunerako eta zigorgabetasunerako abaguneak direla eta, arraroa da pederasta bat modu batean edo bestean ez jardutea, izan ere, pertsona asko bururaino eramatera ausartzen ez deiren abusu zuzen hori erraz ordezkatu daiteke, adibidez, haur pornografiaren kontsumoaren bidez.

Arrisku faktoreak

Arrisku faktore guztiak harreman zuzena izango duten haurtzaroaren babesgabetasunarekin, bai abandonua dela, bai zabarkeria dela, bai honek hartzen duen edozein forma dela. Ondorioa babesgabetasuna eta zaugarritasun egoera da, eta zenbat eta zaugarritasun handiagoa orduan eta abusurako eta erasotuak izateko probabilitate altuagoa, edo beste modu batean esanda, zaugarriagoak diren giza-talde horiek indarkeria mota gehiago, eta intentsitate anitzagoaz, pairatu dezakete. Egoera mailako indarkeriei lotutako indarkeria indibidualaz arituko ginateke, izaera orokorrekoak izan daitezkeenak baina adingabearen testuinguruan errotuak daudenak gabezia larriak sorraraziz. Horrela, adingabearengan babesgabetasuna sortzen duten egoera guztiek, derrigorrean abusura eramaten dutela ez badugu esan nahi ere, arrisku faktoretzan hartzekoak direla esan behar dugu. Garrantzitsuenen artean bost aipatzera goaz.

Lehena familia desegituraketa da. Desegituratutako familia bat errazago eror daiteke zabartasunean, eta barne mailan beharrezkoak diren kontrolen gabezia, edozein motatako erasoen aurrean zelatan ibiltzeko.

Bigarrena familia barneko indarkeria da. Familia bat zeinean indarkeria familia barneko kideen arteko harremanen ohiko parte den, jasangarria eta jasanezinaren arteko muga ahuldu egiten du, arauen hausketa eta jokamolde ezegokien arbitrariotasuna errazagoa bihurtaraziz. Horrez gain, indarkerian hezia dagoen familia batek normalizatu egiten du indarkeria bera, baita indarkeria sexualaz aritzen bagara.

Hirugarrena gizarte bazterketa da. Gizarte bazterketa egoeran egoteak zaugarri bilakatzen ditu pertsonak, are gehiago pertsona adingabeetaz hitz egiten badugu. Euren ongizatea eta segurtasuna zainduta ez dagoen egoera batean aurkitzera eramaten ditu.

Laugarrena aniztasun funtzionala da. Nolabaiteko aniztasun funtzionala duten adingabeek, berez, dependentzia maila altuagoa daukate, autodefentsarako gaitasun urriagoa eta, disfuntzio motaren arabera, ulermenerako gaitasun urriagoa ere bai.

Bosgarrena zaintza eskuordetze arduragabea izendatu ahalko genuena da. Iraganean ohikoagoa zen, arrazoi anitzengatik, seme-alabak erakunde ezberdinetara, normalean erlijiosoak, ematen ziren inolako bermerik gabe, gizarte mailan zeukaten onarpena eta konbentzionalismoetan oinarritutako ustezko autoritatea baino. Gaur egun horrelako egoerak eman daitezke, testuinguru ezberdinen gardentasuna zaintzen ez denean, adingabeak denbora luze igarotzen duten eremuetan.

Eta seigarrenez erakundetzea aipatzen da. Muturreko babesgabetasun eta zaugarritasun egoeran dauden eta, arrazoi honengatik, familia gunearengandik bananduak izan diren adingabeak euren babes mota ezberdinetako erakundeen esku geratzen denean. Abusua eman daiteke horrelako erakundeetan opakuak direnean, edota babespean dauden pertsonen zaintzaileen gaineko kontrolerako tresnak huts egiten dutenean.

3.- Esparruak

Parte hartu duten pertsonen arabera, ez da ohikoa adingabeen kontrako abusuak esparru ireki, zabal edo kalekoetan ematea. Abusuak gehien ematen diren eremuek ondorengo ezaugarriak batzen dituzte:

- itxiak dira;
- adingabeak horietan egote iraunkorra duena;
- bertan abusatzaile eta biktimak hurbiltasuna dutena;
- adingabearekiko erreferentziatzeko helduak, baita autoritate irudiarrekiko atxikimendua, dauden tokiak.
- gardentasun gutxikoak dira eta nolabaiteko zigorgabetasuna errazten duten, edo gutxienez, abusuen ezkutatzea.

Euren ezaugarriengatik, jazarpena eman dadin aukera handiak ematen dituzte eta biktimak izan litzakeen defentsarako harresien erorketa errazten dute.

Esan dezakegu lau direla adingabeen kontrako indarkeria hartzen dituzten hobiak: eskola adina heltzen den arte familia; nerabetasunera arte familia eta eskola; eta hortik aurrera familia, eskola, lagunartea eta internet.

Ikusten dugunez, kasu guztietan dago familia presente, izan ere, adingabeen kontrako indarkeria emateko esparrurik ohikoena da. Adituek emandako hurbilpenen arabera %90etik gorako abusua familia barnean ematen da, hots, abusatzaileek euren familia barnean bertan bilatzen dituzte euren biktimak, bai familia nuklearrean zein familia zabalean. Eta edonolako familietan ematen da, profil definiturik gabe, maila sozialak edo formazio milak inongo axola ez duelarik. Esparru honi lotuta ere aurkitzen da atxikitutako jendea, lagunak normalean, baina auzokideak ere barne.

Aipatutako ezaugarriak betetzen dituzten bestelako esparruak badira ikastetxeak (batez ere ikastetxe pribatuak), aisialdi taldeak, kirol taldeak... Baita erlijio testuingurua ere. Erlijioak, pluralean nahiago izanez gero, baina gure testuinguru hurbilari dagokionez Eliza Katolikoaz arituko ginateke batez ere. Ezagunak izan dira erakunde honen barnean aman diren abusu eta eraso kasuak, noizbehinkako gertaerez harago joandako praktikak izan direla ondorioztatu dezakegun arte, batzuetan toleratua eta beti ezkutatua izan den praktika, zigorgabetasun maila altuarekin bai Eliza barne mailan bai ondorio penalei dagokionez ere. Askotan badira gaur egun jada pertsona helduak diren eta orain dela urte asko pairatu zituzten abusuak azalarazten dituztenak. Fenomenoa desagertu ez den arren badirudi nabarmen murriztu dela, baina ez Elizak berak ezarritako kontrol, ikusarazte eta zigor neurriak direla eta (Eliza beti egon baita aitortzetik eta horren aurrean esku-hartzetik oso urrun), baizik eta erakunde honek azken hamarkadetan izan duen garrantzi sozialaren, konfiantzaren eta boterearen galeraren ondotik.

Azkenengo esparrua Internet dugu. Haur pornografiari dagokionez abusua eta eraso zeharkakoa da kontsumitzen duenaren partetik, erasotzaile izaten jarraitzen duen arren, ez baitu eraso fisikoki burutzen, baina bere eskakizuna da beste hirugarren pertsona batzuk hori egitearen oinarria. Kasu honetan, zigorgabetasuna da gehien baloratzen duena erasotzaile birtualak, baita erabateko aniztasuna duen materialera iristeko erraztasuna ere. Bestalde, sare sozialei eta holakoei (txatak...) buru hitz egiten badugu, biktimarekiko hurbiltasuna ezaugarri fisikoa izatetik ezaugarri birtuala izatera igarotzen da, baina era berdinean handitzen dira nabarmen zigorgabetasunaren eta pribatutasunaren ezaugarriak. Haur pornografiaren eremuan bilatzen diren biktimak adin guztietakoak badira, sare sozialen bidezko abusuak pubertaro

ondorengoei dago zuzenduta batez ere, hauek baitira sarbide handiago dutenak bitarteko informatikoetara.

4.- Beste indarkeriekiko harremana

Ohikoa da HSA bestelako indarkeria mota batuetara lotuta ematea. Badago ere kontrakoa uste duena, beste indarkeria batzuekiko lotura gutxien daukana dela. Hauek bien artean badago dioenak ez bata ez bestea baieztatzeko datu nahikorik ez dagoela. Edozein kasutan, duda barik baieztatu daitekeena da ez dagoela beste indarkeriekiko baztertzaila den indarkeriarik, aldi berekoak izan daitezkeelarik, nahiz eta ez den zehaztu lotura duten ala ez. Oso ohikoa da abusuan ematea aldi bereko bestelako indarkeriarik existitu barik, baina ere gerta daiteke HSAa gertatzea familia ingurugiro zabarrean edota pertsona adingabeak utzikeria emozionala pairatzen duenean, larriak diren bi motatako indarkeria; abusuak ematen diren eta indarkeriarekiko tolerantzia handia duten espazioetan arraroa da hau izatea existitzen den indarkeria mota bakarra, ohikoak izanik amaren kontrako tratu txarrak ere ematea; hainbat kasutan indarkeria matxistaren ezaugarria izan dezake emakume nerabe eta gazteen kontra eragiten denean... baina badago guztien erabateko adostasuna dakarren gauza bat, gai honen inguruko ikerketa sakonagoak egitearen eskakizuna.

Ziurtasun osoz aipatu daitekeena, ordea, indarkeria kateen sorrera da, hau da, denboran zehar mantendutako abusuak eta ondoz-ondoko biktima ezberdinen erreproduzitzen direnak. Orokorrean esan dezakegu HSA errepikatu daitezkeela horrelako portaera eta joerak harremanak izateko moduetan normalizatu egin direnean eta inongo gaitzespenik egon ez denean. Honek ez du esan nahi abusatua izan diren pertsonak etorkizunean konportamendu hauek errepikatuko dituztenik, eurek beraiek erasotzaile bihurtuz. Hori gerta daiteke, noski, baina ez da ohikoena. Indarkeria kateei buruz hitz egiten dugunean hainbat fenomeno ezberdinei buruz hitz egiten ari gara.

Lehendabizi, erasotzaile berdin batek burutu ditzakeen eraso segida familia bereko belaunaldi ezberdinetako biktimen kontra. Abusatzaileak botere nahikoa dauka, autoritatea edo mehatxua dela medio, seme-alaben isiltasuna lehen, eta ilobena geroago, denboran mantentzeko. Seguruenik hau da ematen den kate mota ohikoena.

Bigarrenik, familia bereko beste kide batzuek konportamendu horietaz egin dezaketen errepikapena. Indarkerian murgilduta bizi diren pertsonak indarkeria ikasten dute, ondorioz abusatzaile izatea ere ikasten delarik. Abusuak ematen diren testuinguru batean bizitzeak, azalekoak eta ez zentsuratuak badira batez ere, jokamolde horiek ikasi daitezzen errazten dute, abusatua den pertsona izan ala ez. Kasu askotan pertsona erasotzaileak abusuak eman diren testuinguruetan bizi izan dira. Hala ere, honek ez du zehazten etorkizuneko abusatzaile bat izatea, izan ere, ez da ohikoa; eta ez ohikoagoa da oraindik pederastiaz hitz egiten badugu.

Hirugarrenik, erasotzaile bilakatzen den biktima. Abusuak pairatu izana ez du harremanik etorkizunean burutzen dituen izatearekin. Badira kasuak, baina ez da ohikoena.

Laugarrenik, abusatua izan den pertsona besteenganako abusuak baimentzen duen pertsona da. Aurreko kasuan bezala, gerta daiteke jokamolde hori harremanak izateko modu normalizat integratu denean. Baina ez da arruntena.

Bosgarrenik, abusuak jasan dituen pertsonak biktima izatearen papera barneratzen eta erreproduzitzen du. Lehen esaten genuen bezala, indarkeriak erasotzaile izatera irakasten du, baina biktima izatera ere bai. Biktimizazioak biktima izatearen barneraketa bat ekarri dezake, horrela bizitzera ikasi arte eta konportamendu hori errepikatzen. Nahiko ohikoa da abusatua izan diren pertsonak etorkizunean beste motatako indarkerien biktima izateko erraztasuna izatea, bai eskola jazarpenarena, lanekoa, edota indarkeria matxistarena.

5.- Haurtzaroarekiko begirune soziala

Parte-hartzaileen esanetan, inoiz ez da izan haurtzaroarekiko gaur egun dagoen begirune maila altua, ezta ez du izan egun daukan aitorten legalik. Duela bi mende baino zertxobait gehiagora arte haurtzaroa ez zen ezta existitzen ere, Rousseau izan zen, "El Emilio" bere nobelaren

bitartez, lehen aldiz arreta jarri zuena beregan gizarte subjektu bezala. Baina azken 50 urteetan izan da benetako aurrerapen nabarmena eman den garaia, 1959. urteko Haurren Eskubideen Adierazpena sinatu zen geroztik, 1989. urtean indarberritua izan zena Haurren Eskubideen inguruko Hitzarmenaren argitalpenarekin, biak NBEk bultzatuta. Orduz geroztik bere balioaren hazkundean ez du etenik izan gaur egun inolako zalantzarik gabe lehen mailako eskubide subjektua bilakatu den arte.

Horrela, baieztatu dezakegu gaur egun haurtzaroak inoiz baino babes gehiagoz gozaten duela, hori bai, eta logikoa den bezala, pertsona helduen babesaren eta tutoretzaren baldintzapean. Bere eskubideak argi eta garbi azalarazi dira bere integritatea eta ongizatea bermatu helburuz. Nahikoa da esatea egun, adibidez, ez dela haurren kontrako tratu txarra justifikatzen aitzinean bezala, heziketarako ohiko tresna zenean.

Hala ere, haurtzaroarekin dagoen harremana anibalentea eta kontraesan bezala izaten jarraitzen du, babesaren eta kontutan ez hartzearen artean dabilzan kontraesanak. Hala da, adingabe neskato eta mutikoak gizartearentzako oso ondare baliotsua dira, baina aldi berean ikusezinak eta helduen hautamenaren azpian mantentzen direnak, hauek babeserako bermea ez direlarik. Esandakoak esanda ere, jendartearen permisiboa izaten jarraitzen du umeez oldarkorrek diren hainbat jokamoldeekin, helduen kontrako jarrerak direnean gaitzespen eta zigor penalen objektu diren jokamolde berdinak.

Hau, neurri handi batean, haurrak gurasoen jabego bezala ulertzearen ondorioz ematen da, honi gehitu behar zaiolarik familia kanpoko inork esku hartu ezin dezakeen eremu soberano bat bezala hartzen dela. Horrela, Guraso-Agintea, batzuetan adibidez, adingabe neska eta mutilentzako tranpa bat suposatzen duen ondasun sakratu batean bilakatzen da, behartuak ikusten direnak abusua eguneroko gauza den familia batzuetan bizitzera.

Ikusten dugu, beraz, gainbabesaren eta axolagabekeria sozialaren arteko harreman nahasi bat, paternalismoaren eta balioan jartzearen artean. Honek dakarren arazo bat da, askotan, alarma sozialei erantzunez egiten direla legeak, babesaren inguruko benetako hausnarketa sakon batetik etorri beharrean, benetako arazoak zeintzuk diren inguruan eta hauei eman beharreko irtenbideari buruzkoa. Babesgabetasunak, beraz, eta egondako aurrerapausoez gaindi, hainbat alderditan azaleratzen den errealitate bat jarraitzen du izaten. Hauetatik guk, eta gure lanaren inguruko ildoak jarraiki, lau dira nabarmenduko ditugunak.

Lehendabizi, haurtzaroak subjektu pasibo bezala duen ezerezkeria. Edo alderantziz esanda, haurtzaroa gizarte mailan ukatua jarraitzen du izaten subjektu aktibo bezala eta, kasurik hoberenean, oso modu mugatu batean parte hartzen usten zaio. Baina orokorrean haurtzaroak ez du entzuten, ez du ulertzen, ez du iritzirik, ez da enteratzen, bera partez ematen da iritzia, bere partez aukeratzen da... Neskatoa, mutikoa, familiaren ardura bezala hartzen da, baina inongo ekarpen baliotsurik egiteko ez daukalarik. Nolabait, haurtzaroa, oraindik ulertzen dan heldutasunerako igaroaldi soil bat bezala, bere berezko balioa aitortzen ez zaiolarik, eta ondorioz, neskato eta mutikoak eskubide osoko pertsonak ez balira bezala; zentzu batzuetan, konnotazio negatiboa ere badu.

Bigarrenik, jasan dezakeen mina gutxien da. Sufrimenduzko esperientzia bat adierazten dutenean adibidez, minimizatzen da. Neskato eta mutikoak sufritzen ez dutela pentsatzera heltzen da, nolabaiteko mina sentitzen dute, baina ez dute sufritzen kontzeptuaren zentzu sakonean. Sinismen zabaldua da euren estutasun, atsekabe, mingostasun, antsietate, samintasun, tristura sentimendu eta adierazpenak beti direla gehiegizkoak eta ez zaiela garrantzia handirik eman behar.

Hirugarrenik, adingabeak beti gezurretan ari direnaren susmagarri dira, gezurra esaten ez dutenean fantaseatzen ari baitira. Oso ohikoa da, beraz, euren esanak zalantzan jartzea, ez zaie askotan erraztasunez sinisten. Alabaina, komenigarria da kontutan izatea gezurra esatea ez dela hain erraza, praktika, kontzentrazioa eta gaitasun handia eskatzen duen ekintza kontziente bat dela. Eta gezur hori mantentzea oraindik zailagoa da. Bestalde, haurtzaroko hizkera mundu helduaren hizkeratik oso urrun dagoela gogoratu behar da, eta helarazi nahi dizkiguten mezuen ulermenak gaitasun nabarmenak eskatzen dituela ere. Bere zeinuak ondo dekodifikatzea dakar. Aditu ezberdinen ustetan, sexu abusuen gaiari dagokienez, adingabeek,

egia esan ohi dute, oso arraroa da kontrakoa. Gertatzekotan pubertaroa igaro duten adingabe nagusietan eman daiteke.

Laugarrenik, gogorarazten dugu aurretik haurren hipersexualizazioaz esaten genuena. Haur sexualitatea eta helduen sexualitatea lotzea inorako jauzi arriskutsu bat ematea suposatzen du, nortasun sexual orekatu bat lortzeko ezinbestekoak diren haurtzaro eta gaztaroko hazkunde eta garapen aroak ukatzea suposatzen duena. Nolabait, haurtzaroa lapurtzen zaie, honek heldutasunik gabeko helduak sortzea dakarren arrisku larriarekin, jarrera erasotzaileak ekarri ditzakeen haurtzaroaren irudi ezegokiaz gain, noski.

6.- Arazoaren ikusaraztea: pribatutik publikora

Ikusarazteak

Elkarrizketatutako pertsona guztiak bat datoz HSA ikusaraztea izugarriko garrantzia duela, beharrezkoa dela eta horiek ezkutatzeko konponbideak baino arazo gehiago dakartzanarekin. Hori bai, horrek dakarren akordio maila bera, publikora pasatzeko bide horrek biktimak bera beti erdigunean izan behar duela esateak dakar, eta adingabeei ekarriko dizkien onurak kontutan edukiz egin beharreko prozesua dela, bereziki abusuak pairatu izan dituzten pertsonen. Biktimak eta haurtzaroa bera kalterik jasan ez ditzala da, beraz, erabateko lehentasuna. Biktimek duten intimitaterako eta anonimotasunerako eskubide osoa inposatzen da, ondorioz. Ikusarazi bai, noski, baina kontu handiz, morboa eragitetik urrunduz eta planteamendu sinplistik alde batera utziz.

Ikusarazte maila ezberdinak bi berezitu dira. Lehena, biktimak pairatutako esperientzia azalaraztearen beharri eta egokitasunari deritzo. Bizitzen ari den edo bizi izan duen errealitatearen urgaineratzea ezinbesteko baldintza da pairatutakoa gainditzeko edonolako prozesua has dadin. Lehendabizi, abusuak pairatzen egonez gero geldiarazteko eta bigarrenik berreraikitze pertsonalerako prozesua lehenbailehen asteko, hauek bukatu orduko edo iraganean pairatu izan badira. Abusuak, pertsona erasotzailearen eta pertsona erasotzailearen areko sekretuan izateari bukaera ematen zaio eta publikoaren eremura pasatzen dira, intimitatea usten dute, baina ez dute zertan eremu pribatutik irten behar, hori biktimak hartzen duen bideak soilik erabakiko du.

Bigarrenak ikusarazte sozialari egiten dio aipu, benetako dimentsio publikoaz ari gara, bi bide ezberdin hartu ditzakeena, justiziaren bidea edo komunikabideen bidezko salaketarena. Lehenak ez du zertan bigarrenean eraman behar, baina ez dira bata bestearen baztertzailak. Bigarrena zailena da, izan ere biktimari ikusgarritasun gehien ematen diona da, eta aurrerago ikusiko ditugun zenbait arrisku dakarkio biktimari. Helburua kasu zehatzak ikusaraztea baldin bada, biktimekiko errespetu osoz egin beharko da; helburua HSA gizarte mailako arazo bat bezala erakuste bada ordea, ez dago eragozpenik. Edozein kasutan ere, edonolako ikusaraztea inongo karrankarik gabe egin behar da, indar osoz, baina beharrezko ez den alarma sozialik eragin gabe.

Ikusarazteko arazoak

Elkarrizketetan parte hartu zuten guztiek onartzen zuten premisa argitara ematea ona dela zen. Izan ere, arazoaren errealitatea ezagutzea modu bakarra baita honi heldu, konponbidea eman eta gero eta maiztasun gutxiagorekin gerta dadin. Gainera, ikusarazten den guztiak beldurraren kontra egiten du, eta indarkeria kontuez ari garenean beldurra oso elementu potentea da. Ikusgarri egiten den heinean, beldurrak atzeraka egiten du, bai biktimetan zein hauek ulertu eta lagundu behar dituen gizarte batean, berekiko harremana normalizatuz eta birbiktimizazioarako tendentzia gutxituz.

Biktiman jartzen badugu begirunea, isiltasunak bizi izandako esperientzia traumatikoaren lanketa eragozten du. Arazo ikusaraztea eta duen benetako dimentsioa biktimak bakarrik sentitu ez dadin balio du, ez dadila sentitu estali beharreko gauza ikaragarriak gertatzen zaizkion izaki arraro baten moduan; euren esperientziak argitara ateraz biktimen arteko elkartasuna ere sortzen da. Horrekin batera, seinalatu eta estigmatizatu behar ez den delitu bat bezala normalizatzen da, arazo bat da, larritasun handikoa, baina ez lotsa edo errukeria sentiarazi

behar duen ezer. Gainera, beste biktima batzuk salatzeraz ere bultzatzen du. Isiltasunak abusuaren barneratzea sustatzen du, onargarri eta ekidinez bezala, eta hortik datoz abusuak lotutako kalte asko, ondorio pertsonal negatibo moduan pairatzen direnak. Ikusarazteak elkarbanatzea dakar, eta honek autoestimua eta boteretzea sustatzen ditu. Gainera, isiltasunak indarkeria kateak sortu daitezkeen mesedetan doa.

Zabalagoa den ikuspegi sozial batetik, arazoa ikusarazteak elkarbanatutako fenomeno bihurtzen du arazoa bera, eremu intimotik eta pribatutik harago doana eta jendarteari bere osotasunean eragiten diona, herritartasun guztiari. Jendarte, biztanleria sentsibilizatzeko modu bakarra da. Eta sentsibilizazioa oinarritzeko da, lehendabizi hurbileko eta ohiko arazo bat denaren kontzientzia sortzen duelako, adingabeak babesteko bere gain ekin behar den arazoa. Bigarrenik, gaitzetsi beharreko zeozer bihurtzen duelako, onartezina den zeozer, estigmatizazioa eta birbiktimizazioa desagerrarazteari lagunduz. Jendeak jarrera aldatzera behartuta ikusten du bere burua, eta erakunde publikoak neurriak hartzearen aldeko joera nabarmenagoa azaltzen dute.

Beste alde batetik, arazoaren agerpen berak, arazoari buruzko ezagupena errazten du, hau da, bere zergatiak, ezaugarriak eta mekanismoak aztertu daitezke. Honek bere antzematerako eta tratamendurako, baita bere aurka eraginkortasun handiagoaz egin ahal izateko tresnak sortu eta eragiteko irizpideak emango dizkigularik ere.

Ikusarazteak justiziak jardun dezan ahalbidetzen du. Kasu gehiagoren hautematea sustatzen du, baita inpunitate espazioak gero eta gutxiago izan daitezkeen ere. Gainera, delitugile oldarkor eta itxuraz zatarrekoei lotutako delinkuentziaren estereotipoak apurtzen ditu, maila sozial zehatz batzuei eta norbanakoaren urruneko inguruei lotutakoak, errealtatetik urrun dauden topikoak denak, alegia. Arrisku eremu potentzialak antzematen ere laguntzen du, eta profesionalen artean pedagogia egitera, kasuak identifikatu eta detektatzen lagunduz. Gizarteak berak duen erantzukizunaz jabetzeko ere lagungarria da, baita babeserako sistema ezberdinak esku-hartzerako orduan (sistema judiziala, osasun eremua, hezkuntza...) HSAko biktimak benetako babesa izan dezaten eta birbiktimizazioak ekidituz.

Isiltasunaren zergatiak

Arazo honen ikusarazteak dituen abantaila guztiak dituela ere, oraindik ezkutuan mantentzen da. Horrela izatea ez da halabeharrezko zeozer, hainbat arrazoiengan oinarritzen da, adituek azpimarratzen joan direnak eta segituan zerrendatzen ditugunak.

- Abusu kasu edo egoera bat hautematea eta salatzeak konpromiso bat dakar, alegia, pertsona heldu batek bere kargu dituen adingabeen ardura duela, eta edozein adingaberena ere. Eskubideen bermatzaile izatearen betebeharrak hau ez da arrazoi ezberdinengatik hartzen: familia bakoitzaren arazo pribatuak direla pentsatuz, ekar ditzakeen arazoak bereak egin nahi izatera. Hau, legalki rol hau hartu beharko luketen profesionalen artean ere gertatzen da.

- HSA gizarte mailan laidoztatuen dauden indarkeria moten artean daude. Edozein pertsonaren gaineko abusu inputazio batek, hain larria izanik, pertsona hori bere etorkizun osorako markatzea suposatzen du, gainetik kentzeko oso zaila izango duen estigma batekin. Honen ondorioz, erresistentzia asko daude edozein pertsona honetaz akusatzeke ez badago erabateko ziurtasuna egoera hori eman denaz, kontutan izanda bere bizitza pikutara bota dezakeela.

- Erabateko ziurtasun hau kasik ezinezkoa da, izan ere, abusuak intimitate hertsian geratzen dira eta biktima ez den beste inongo testigurik barik. Gertakizunak probatzeko zailtasuna muturrekoak dira kasu hauetan, justiziak esku-hartzen duenean ere.

- Gizarte mailan ematen den estigmatizazioa ez da bakarrik erasotzailearengan ematen, biktimarengan ere ematen da. Honek, lotsa sentituko du abusuak pairatu dituela onartzerako orduan, baita biktimaren ingurukoak ere. Oso ohikoa da familiek, erdi eta goi mailako klaseetakoetan batez ere, gertatutakoak ez salatzea, gizarte zerbitzuekin eta epaitegiekin harremanak ekiditeko helburuz, horrek ospe galera bezala ikusten baita.

- Azkenengo aurreiritzi honek esku-hartzerako berezko zeihartasun bat suposatzen du, hau delarik datu gehienak ateratzen diren tokia. Erakunde ezberdinetako gizarte zerbitzuetara, oso larriak direnean ailegatzen dira arazoak, estaltzen jarraitzea ezinezkoa denean. Hori normalean familia desegituratuetan gertatzen da, zeinean adingabea den pertsonak ez daukan babestuko dion inongo pertsonarik. Honek arazoa bere benetako dimentsioan argitara atera ez dadila ekartzen du nahi ala ez. HSA familia normalizatuetan gertatzen direnean (esamoldea onartu zatzaigula) eta familiakoak ez diren eremuetan gertatzerakoan, ohikoa izaten da askotan irtenbiderako bide pribatuak bilatzea.

- Sexuan oinarritutako abusu mota bat izateak ez du batere laguntzen. Sexuaren inguruan oraindik orain gure gizartean nagusi diren pentsaera negatiboek, lotsa gehiago gehitzen diote gertaerari. Sexuarekin harremana duen guztia argitara ateratzeari beldur diogu. Are gehiago, horrelako eremu hurbil batean gertatu izan bada. Sexua alde batetik eta familia beste batetik, gure gizartea egituratzen duten elementuetako bi dira, gizarte mailako elkarbizitzarako beharrezkoak diren arauak eta mugak ezartzen dituzte, eta hauen urraketak gure modus vivendi-aren goitik beherako zalantzan jartzea suposatzen du.

- Prozesu judizialak etsaitasunezko testuingurutzat hartzen dira salaketa jarri duten askoren partetik. Salaketa egiteak ekarriko lukeen prozesua kudeatzen ez jakitearen beldur handia dago, bai prozedimenduak berak dakartzan zailtasunen ondorioz, bai biktimarentzako emaitza onuragarria ekarriko duen zalantzagatik, sufrimendu gehigarri bat ekarriko lukeelakoan eta birbiktimizazio egoerak ere eman daitezkeelakoaren beldurragatik.

- Familia eremutik kanpo dauden eremuetan, eliza, eskola pribatuak... kasu, isiltasuna jabetzen da etor daitezkeen ondorio penal eta sozialen beldur, nahiago izan ohi dutelarik arazoaren barrutiko eta publizitate gabeko "konponbide" bat; talde sektarioetan hain normala bihurtu daiteke abusa, zein nolabaiteko hasierako prozesu bezala hartzen den.

- Kasu batzuetan, aitak, amak edo familiakoak diren beste pertsona batzuk errudun sentitzen dira, ez direlako adingabeak zaintzeko eta babesteko gai izan. Ondo jokatu ez izanagatik sortu daitezkeen erantzun sozialak isiltasuna eragiten du askotan.

- Familiak, bloke sozial bezala -ez hainbeste bizikidetasunezkoa- daukan gainbalorazioak, bere balizko apurketak beldur handia eragiten du, eta ondorioz gertakari asko isilarazi eta elkarbanatutako sekretua bihurtu daitezke ekartzen du. Horrelako kasuetan ohikoa da biktima beraren erruduntzea erabiltzea salaketa posible bat ekiditeko, bai abusuak probokatu izanaren, bai familiaren batasuna arriskuan jartzearen errudun. Ez da arraroa izaten adingabe batek familiako kide baten kontrako salaketa jartzea beste familiako kideen aurkakotasunarekin.

- Abusua adin txikiko pertsonen kontra gertatzen denean, posiblea da hauek abusatuak izaten ari direnaren kontziente ez izatea; oso zaila da abusu bat horrela identifikatzeko gai izatea. Beste alde batetik, nagusiagoak badira ere, eta nahiz eta abusua identifikatu, baliteke neska eta mutil hauek beharrezko errekursoak ez izatea (heldutasuna, behar bezalako gizarte laguntzak...) bere burua babesteko edo gertatutakoak ezagutzera emateko. Isiltasun hori behin-betik bilakatzen da eta oso ohikoa da heldu asko terapia psikologian hastea bestelako edozein arazorengatik, eta hirugarren edo laugarren saioan txikitan jasandako abusu sexualak estalgabetzea.

- Abusua boteredun figura batengandik etortzen da beti, bere estatusa erabiltzen duena bere nahiak asetzeko. Botere hau bi modutan erabili daiteke: lehena, eta ohikoena, sedukzioaren bidez, hots, gertaeraren ezagutza zailtzen duen elkarbanatutako estali beharreko sekretu baten aura sortzea; bigarrena, mehatxu zuzen eta derrigortzearen bitartez, bai biktimarengan, bai inguru hurbilean egoera ezagutu eta salatu dezaketen beste pertsonengan.

- Baina HSAko kasu gehienetan ez dago indarkeria fisikorik edo oldarkortasunik, ez da holako mehatxurik existitzen. Gainera, biktima horrelako egoera onartzen ari denaz konbentzitu egiten da, gustuko duenaz. Biktima, kasu askotan, gogo onez hartzen du abusua modu inkontzientean, ez daki abusu hau identifikatzen eta gainera fisikoki "saritua" sentitzen da (gustatzen zaio) eta baita emozional mailan aitortua (bera da gogokoena, tratu hobereana jasaten duena, oparirik hoberenak jasotzen dituen), abusatzailearen aldetiko jolas zikin

batean. Sedukzioa dagoenean errua elkarbanatutako errua bezala aurkezten da biktima eta erasotzailearen artean. Baina errealitatea, sedukzio hori boteredunaren partetik pertsona zaurgarri baten manipulazioa eta botere abusu bat besterik ez dela da. Hala ere, hori ez da biktimaren partetik modu horretan identifikatzen, berak bere burua onarpena ematen duen pertsona bezala ikusten duelarik. Momentu horretan sartzen dira jokoan egin dena baimendu izanak ekartzen duen errua eta isiltasuna. Sedukzioa txantajea edota indarkeria fisikoa bera baino okerragoa da, biktima erruduntasun eta erantzunkidetasun faltsu batean murgiltzen delako, irteteko oso zaila den distortsio kognitibo bat sortuz. Eta horrek dakartzan kalte psikologikoak larriagoak eta epe luzeragokoak izan daitezkeelarik.

.- Arazoaren aurrean ukazioa izan ohi da kasu askotan ematen den erantzuna. Ukazio hau aurre egin beharreko eta atsekabea sortzen duten bi egoera hauen aurrean ematen da:

a/ Hauetariko lehena, bere betebeharra pertsona adingabea babestea duen hurbileko norbait, seguruenik maite eta errespetatzen den norbait, abusuaren bidez guzti horren kontra jardun duela onartzearena da. Hori onartzeak eta aitortzeak zailtasun handiak dakartza, bai biktimentzat zein familiarentzat ,eta baita gertuko jendearentzat ere. Iruzurra onartzea oso latza da, baita oso gertukoak diren pertsonak salatzearen beharraren ardura hartu behar izatea ere. Familia testuinguruan leialtasunen liskar bat gertatzen da, abusua salatzen duenaren eta errugabe deklaratzeko pertsonen arteko fideltasunen joko bat. Elkarrizketatutako aditu batek esaten duen bezala, haurtzaroaren babesa axioma bat da erasotzailea den pertsonari izen eta abizenak jartzen zaizkion arte, pertsona horri buruz sortuta dugun irudi idealizatua apurtzearen arriskua gertu ikusten dugun arte. Irudi hori berorren izaeraren ezaugarri bezala proiektatzen da, pertsona hori nik nahi dudana bezalako da, eta hori ez da beti errealitatea: hutsegite hori onartu behar izateak asko kostatzen du. Ez da arraroa erasotzailearen aldeko jarrera, biktimari sinesgarritasunik ez ematen eta berau erruduntzen. Honek, bere aldetik, bere barne borroka ere badauka, afektuen eta errealitatearen arteko borroka. Berarentzat sufrimendu bikoitza suposatzen du, lehendabizi salaketa jartzearen harresiak apurtzearena eta, bigarrenik, babestu beharko luketen gainontzeko pertsona helduengatik sinetsia ez izatearena.

b/ Bigarrena, ez litzateke bakarrik horrelakoak gertatzen direla onartzearena, baizik eta edonori gerta litzazigukeela ere onartzea. Horrela, edozein bitarteko erabiliz defenditzearen beharra sortzen da, edozein prezioztara, arazoa bera ukatzea edo erruak desbideratzea eta biktima gure etsai bihurtzearena barne. Pertsonok ezer oso bizi gara ezjakintasunean, segurtasuna sentitu behar dugu, gertukoak diren eta babesa jaso behar dugun gaien inguruan batez ere. Beste edozer pentsatzeak izutzen gaitu. Aurreikusitako ezin daitekeenaren kontzientzia galdu dugu eta dena aurreikusitako daitekeen eta justua den mundu batean bizi garenaren ideia faltsua daukagu, zeinean pertsona onei bakarrik gauza onak gertatzen zaizkion, eta pertsona gaiztoei dela gauza txarrak gertatzen zaizkionei. Gure joera, beraz, normaren barruan kokatzen garela pentsatzearena da, abusua bezalako hain gauza ikaragarria egiturarik gabeko eta indarkerian oinarritzen diren testuinguruetan bakarrik gertatzen direla, ez gurean, ona eta osasuntsua dena. Ez diogu aurre egin nahi, ezagutu, aitortu, eta ondorioz hobereana ez existitzea da. Isiltasunak, gaitzesgarriak diren egoeren aurrean segurtasun sententzia ematen digu. Kanpoko den pertsona batek burututako eta kasu zehatz batean ematen den indarkeriarako prest gaude, eta hori oso erraz ikusarazten da; baina ez ordea afektuzko harreman baten bidez batzen gaituen eta normalean familiako kide den erasotzaile baterako.

Testuinguru honetan, biktima edo abusatzen duen pertsona, normalean inguru berdineko edo antzekoa den pertsona, gure bizitza zalantzan jartzen du, gure errealitatea; deitoragarria denaren aurrean jartzen gaitu, horren antzeko zeozer pairatzearen edo burutzearen posibilitatearen aurrean. Gu bezalako pertsona bat bezala ikusten badugu, segurtasun eza dakarkigu; horregatik biktima izatekotan, bere gain guk inoiz izango ez gurek erantzukizun bat jartzera jotzen dugu, eta gauza ezberdinak egozten dizkiogu: nola edo hala jantzen den, bata edo beste egingo zuen... nigandik ezberdina da nik horrelakorik egiten ez dudalako, beraz ni libre nago, niri ez zait horrelakorik gertatuko. Erasotzen duenari bada ordea, buru gaixotasunak edo aurreikusitako ezin daitezkeen desorekak erantzuten dizkiogu. Hoberena beraz ez sinistea da, bere existentzia bera ukatzea edo gu horrelako gertaeretatik alde batera utziko gaituzten erruduntasunak bilatzea, nahiz eta honek biktima beraren kalterako eta erasotzen duen pertsonaren zigorgabetasuna badakar ere.

Noren mesedean doa isiltasuna

Galdekizun honen aurrean ahobatezkoa eta zehatza da erantzuna: abusatzen duen pertsonaren mesedetan. Isiltasunak zigorgabetasuna suposatzen du, eta delitua zigorgabetasunean autoafirmatzen eta erreproduzitzen da, edozein pertsona erasotzaile izateko ateak irekitzen. Hau esanda, gorpila handitzen doa, konplizeak direnen mesedetan ere baitoa isiltasuna, laguntza eskaintzen ez dutelako, onartzen dutelako eta estaltzen dutelako, hauek ere zigorgabe geratzen baitira. Nolabait, arazo hau ikusarazi ez dadin modu bateko edo besteko interesa duenaren mesedetan ere badoa (mota guztietako erakundeak, administrazioa barne). Hauek, isiltasun hau arazoari aurre egiteko haitzaki bezala erabiltzen dute, baita desagerrarazteko, prebenitzeko, babesteko, esku-hartzeko eta konpontzeko neurriak eta errekurtsoak jartzera behartuak ez egoteko ere. Eta eremu goren batean, sistema patriarkal berari ere ondo dator kio, baita honen ondorioz pribilegioak gozaten dituztenei. Izan ere, isiltasuna errefortzu bat da, nolabaiteko onarpena.

Baina errealitatean, isiltasuna inorentzako onuragarri ez dela pentsatzen duena ere badago, ezkutatzeko ez duelako horrekin bukatzea esan nahi, eta lehen baino beranduago, gertakaria argira ateratzen da, pertsona asko eta sistema bera ere agerian utziz; eta bestalde pertsona erasotzailearen onurako ere ez dela, bere gabeziak konpontzeko nolabaiteko tratamendua jaso dezan ekiditen duelako.

Detekzioa

HSA pertsonaren heldutasun garapen eta garapen psikomaduratiboan bat-batean eta modu latzean sartzen den egoera bat da, bere garapenaren aspektu batean edo bat baino gehiagotan desoreka sortuz. Detekzioak beraz berebiziko garrantzia dauka; zenbat eta lehenago identifikatu eta lehenago esku-hartu, gertakizun traumatiko horri konponbide bat bilatzeko aukera handiagoak izango ditu. Ikusi eta zehaztu beharko da zein aspektu edota dimentsiotan izan duen eragina, zeintzuk izan diren ondorioak, eta beharrezkoak izango diren laguntzak eta esku-hartzeak, pertsona adingabearen eta bere ingurunearen ongizatea sustatzeko. Laguntza beti da beharrezkoa, baina ez du zertan kasu guztietan tratamendu psikologikoa izan behar.

Abusu kasuen detekzio lana zailtasun izugarria duen jardueraren bide erabiliz egin daiteke: 1/ lekukoek jarritako salaketa baten bidez, hau ia ezinezkoa delarik gertaera hauek duten pribatutasun eta sekretu maila dela eta; 2/ biktimaren kontakizunagatik, kasuen erdian horrela jakiten delarik, baina daukan eragozpenarekin, hau da, pertsona adingabe baten hitza dela, zeina kasu askotan dudatan jartzen den; 3/ susmoen ondorioz -kasuen beste erdia-, baina inoiz ez zehatza, indikatzaile guztien zehaztugabetasuna dela eta. Susmoak abusua pairatzen ari denaren sintoma ezberdin guztiak elkartzetik etorriko lirateke.

Biktimaren kontakizuna ematen denean, konsigna beti sinistea da. Ikusi genuen bezala, adingabe neska-mutilek ez ohi dute gezurrik esaten edo gai hauen inguruan fantaseatzen eta neskato edo mutiko baten espontaneotasuna beti da sinesgarria. Gezurra estearen kasu ez probablean ere, adin gehiagoko adingabeak badira ere, konsigna berdina da. Izan ere, naiz eta gertatu ez izan, hori esateak nolabait kasu egin beharko zaion beste arazoren baten ondoriozkoa izango da. Adingabe bat sexu abusu bat kontaktzen duenean ez sinistea abusua bera bezain arriskutsua da, babesgabetasun sentimendua suntsitzailea izan baitaiteke adingabearentzat, honek birbiktimizazio posible bat suposatuko lukeelako.

Susmoaren kasua delikatua da sintomek duten zehaztugabetasunagatik. Pertsona adingabea bere garapen prozesuaren desorekaren bat sortzen dion edonolako egoera baten aztarnak antzematen badira, berehala esku-hartu beharko da horretan. Aztertu beharko da ea honek zeri erantzuten dion. Abusuen ondoriozkoak baldin badira edo ez badira, berdin-berdin landu beharko dira.

Salaketa faltsuei dagokienez, hauek helduen susmoen ondotik datozen salaketei dagozkie, adingabeen kontaketa zuzenei baino. Ez dago bere intzidentziaren inguruko daturik, baina bai probatutzat ematen da familia barneko liskarrak dauden kasuetan gertatzen direla, bai adingabe neska-mutilak helduek elkarri jaurtizeko arma bilakatzen direnean, bai istilua sortu duen familiako kidearekiko konfiantza falta dela eta sortzen diren gehiegizko beldurrengatik. Azpimarratu nahi dugu adingabeak ez direla gezurra esaten dutenak, baina errealitatearekin

zehatz mehats ez datorren zeozer kontatzekotan, normalean modu ezberdinetan kontaktzen dute, eta ezberdin pertsona ezberdinei, kontaketa espontaneoak eta erreala den kasuekin alderatuz. Kontakizun faltsu hau induzitua izatea gerta daiteke. Zentsu honetan, abusetan formazioa eta esperientzia duten profesionalak badakite faltsua den kontaketa baten eta erreala den baten artean bereizten.

Detekziorako alderdi esanguratsuenei dagokienez, honako hauek dira: biktimaren familia bera, eta osasun sistema eta eskola zentroak, batez ere haur hezkuntza eta lehen hezkuntzakoak. Familia barneko detekzioa gatazkatsua izan daiteke maiz, kasu batzuetan afektuan eta konfiantzan oinarritutako harremanak existitu daitezkeen aztarnak modu egokian identifikatzea sailtzen baitu; beste kasu askotan ez da ikusi nahi, ezkututzen da, eta erasotzen duen pertsonari ematen zaio sostengua. Azkenik, abusua detektatua eta salatua den kasuan, salaketa hori jartzen duen pertsona heldua -kasu gehienetan ama-, ez du abusua berak bakarrik demostratu behar, baita bere aldetik inolako asmo txarrik ez duela bere jardutean eta bere interesa adingabearen babesean oinarritutakoa dela ere bai. Osasun eta hezkuntza sistemei dagokienez, zaintza derrigortasuna existitzen da, beraiekin dauden denbora horretan adingabeen arduradunak dira eta hauek babesteko betekizuna daukate, baita abusu kasu baten susmoa izanez gero berari salatzeke betebeharra ere. Hemen arazo ezberdinekin egiten dugu topo. Hezkuntza sistemari dagokionez, lau: lehena, eremu honetako profesionalak ez dutela beti segurtasun bermatzaile izatearen rola, ezta edozein susmo sendo ikustekotan behar denari jakinarazteko betebeharra ere ez; bigarrena, abusuaren gaiaren inguruko formazio espezifikorik ez izatetik dator, eta adingabearengan anomaliaren bat hautematekotan honekin jarraitu beharreko pausoen erabateko ezjakintasuna; hirugarrenik, ez dago detekziorako indikatzaile ez protokolorik; eta laugarren eta azkenik, ez dago salaketa jartzeko bidean gidatzen eta laguntzen dituzten jarduteko protokolorik ere ez.

Osasun eremuan, protokoloak erabat zehaztuta daude eta pertsona adingabe batean sexu moduko lesioak, edo abusuak egon daitekeela esan nahi duen edozein motatako lesiorik sumatzekotan, berehala jarri behar dira gizarte zerbitzuak edo justizia horren jakinaren pean. Osasun publikoa da protokolo hauen aurrean hoberen erantzuten duena, eta berdin gertatzen da hezkuntzan, izan ere, elkarriketatutako pertsona batzuek onartzen dituzten, osasun pribatuak opakutasunera jotzen du gai honetan.

Gaur egun, esku-hartzea jarraitzen du izaten abusuari aurre egiteko irteera-puntua. Neurri handi batean ikusezina den arazo bat da, bere inguruan dagoen informazioa ez da egokia, gizarte kontzientziaziorako lana oraindik egiteke dago, bere burua defendatu lezaketean adingabe neska-mutilek ez daukate behar besteko enpoderamendua EZ esateko... Momentu honetan, detekzio egoki bat izango litzateke dagoen tresna bakarra.

Nori dagokio erantzukizuna

Badago inongo zalantzarik gabe elkarriketatu guztiak batzen dituen zerbait: inongo erantzukizunik pairatu behar ez duen pertsona biktima da. Adingabea denean, gertatzen ari den guztia identifikatzeko eta kudeatzeko duen gaitasun ezagatik; eta heldutasunera heltzen denean, laguntza eskatzeko eta erutasun gurriletik irteera izugarri zailtzen duen metatutako zama emozionalagatik, gehi onespenez, bizi-larritasuna, beldurrak...

Era berean, denak datoz bat abusua aurrera eramaten duen pertsona emandako gertakarien errudun nagusia dela adierazterakoan, erantzukizun horretatik libratzeko inongo pisuzko arrazoirik existitzen ez delarik, bere pertsonalitatean izan ditzakeen gabezia ezberdinak direla edo ez direla, nahiz eta biktima den neska edo mutilaren partetik nolabaiteko onarpena egon eta bata zein bestearen heldutasun mailak alde batera utzita.

Hemendik aurrera, erantzukizunak banatzen doaz eragile ezberdinen artean neurri handiagoan edo txikiagoan. Lehendabizi, badaude jakin arren erantzunik ematen ez diotenak eta ezkututzen dutenak. Kasu honetan, iritzi ezberdinak daude: alde batetik, jakitun diren pertsonak baina salatzekeotan euren segurtasuna arriskuan jartzen duten pertsonen egoera zirkunstantzia aringarri bezala ikusten dutenak eta beste aldetik inolako egoerak isiltasuna justifikatzen ez duela pentsatzen dutenak. Ondoren datoz: familiak, zeinek ez dituzten seme-alabak horrelako gauzak kontatzeko konfiantzarekin hezten; administrazioak, zeinek ez dituzten esku-hartzeko

beharrezkoak liratekeen errekurtsioak jartzen eta, isiltasuna haitzaki, eurek gobernatzen dituzten lurraldeetan horrelakoak gertatzen ez direla ikusarazten duten; eliza bezalako erakunde ezberdinak, abusuak onartu eta pertsona abusatzaileak babesten dituztenak; eta komunikabideak, arazoa erazten laguntzen ez duten datu nahasiak, zeozer gutxi esatearren, bidaltzen dituztenak.

Nolabaiteko gizarte mailako erantzukizun elkarbanatu bat ere adierazten da, isiltasuna, estigmatizazioa eta birbiktimizazioa errazten dituztenei begira. Badago ere delitu baten ezagun dena hau salatzeko betebeharra duela gogorarazten diguna, baita behar duena laguntzea ere legalki ezarrita dagoen betebeharrak bat dela, hala ere, bere konplimendua, normalean, ez da jazartzen.

7.- Biktima

Biktimari dagokionez badaude elkarriketatutako pertsonak azpimarratu nahiko lituzketen hainbat alderdi. Eta horietatik lehena jarrera eta jokamolde batzuk sortzen dioten kaltearekin lotuta dago.

Biktima batek pairatzen duen kalterik handiena babesgabatasuna da, abandonatua izatearen sentipena. Eta sentipen hau, prozesu terapeutikoetan, abusia bera tratatzea baino zailagoa da oraindik ere. Horrelako biolentzia bat jasan duen pertsona benetan desegituratzen duena, sinetsia ez izatearen sentimendua da, sostengatua ez sentitzearena, bere familia inguruagatik babestu gabea, bere ingurune hurbilekoengandik, maite dituen pertsonengandik eta berarentzat erreferente diren pertsonengandik -irakaslegoa, begiraleak eta hezitzaileak...- zeinei kontatzen saiatu zen. Traizionatuta, abandonatuta eta bakarrik sentitzen da, eta inoiz baino zaugarriago. Erabateko hutsunea eta isolamendua da. Gainera, erruduntze sentimenduekin batera bizitzen den egoera hau suntsitzailea izaten bukatzen du, birbiktimizazioa dakarrelarik, etorkizunean lantzeko oso zaila. Biktima sinetsia sentitu behar da.

Pairatzen duen birbiktimizazio arriskutsu bat gizartearen estigmatizazioaren ondorioz jasaten duena da. Eramangarriagoa izango da biktimak bere inguru hurbilarengandik eta erreferentziak dituen beste pertsonengandik sostengua jasotzen badu. Estigma hau handiagoa da zenbat eta ikusaraztea handiagoa den. Biktimari eragingo dion ikusarazte bat bermatzea erabat ezinezkoa da, baina ekidin beharko litzatekeen gauza bat gertakizunen jakitunek biktima etiketatzea da, eta edonola ere, ez dadin seinalatua izan eta are gutxiago erruduntzat jo. Kasu askotan biktima erasotzailea baino estigmatizatuagoa suertatzen da. Aurretik esan den bezala, arazotik kanpo kokatzen gaituenaz gain, edonolako errua biktimarengan jartzea guregan erantzun ezarengatik aitzakiak bilatzea izango litzateke. Erantzukizuna kentzen digu, gure buruari errua kentzen diogu eta gure konpromiso ezaren aurrean justifikatzen gaitu: nik zeozer egin beharko nuke, baina biktima ere erruduna denez, bere gauza da eta nik ez nintzateke zertan horretan sartu behar.

Birbiktimizazio edo bigarreneko biktimizazio hau areagotu ohi da epaiketa prozesuan sartzen bada, biktima bizi izan zituen abusu egoerak berriz ere kontatu behar dituelarik, galdetzen eta birgaldetzen eta bere hitza kolokan jarriz.

Horrela, biktimak burutu beharko duen berreraikitze pertsonalerako prozesuan oztopatuko luketen elementu nagusiak ondorengoak izango lirateke: familiaren sostengu eza, pairatutako esperientzia behin eta berriz birbizitzea babestutako espazioak ez diren horietan (ad.: terapia bat); batez ere berak izan lezakeen erruari lotutako erruduntzea; eta izan ditzakeen beldur eta erruduntasun sentipenak, adibidez, familiaren apurketarena.

Gizarte mailan ematen den estigmatizazioari autoestigmatizazioari beldurra gehitzen zaio. Biktima bakarrik sentitzen da izaki arrotz bat bezala, zikina eta gaiztoa. Bere amorrua bere gain ezartzen da eta gizarte osoaren kontra islatzen du, bera babestu ez zuen gizarte horren kontra. Bere beldurra ere sentitzen du bere burua besteei kalte handia egiteko gai ikusten dutelako. Biktimiek euren birgaitze prozesuan lagunduko dituzten pertsonen beharrezko laguntza osoa izan dezatenaren ardura da garrantzitsuena. Kontatu dezatela garrantzi handikoa da, baina are garrantzi handiagoa dauka entzuteko gai izango den norbait topatzea. Pertsona adingabea HSA kontatzen duenean eta entzungo duen inor topatzen ez duenean, gainbehera latzagoa da

oraindik. Babesgabetasun psikologikoa ematen da bere zentzu zorrotzengana. Pertsona helduen mundua erortzen da. Entzute irudia laguntzeko prest dagoen eta pertsona adingabearen inguru hurbilean kokatzen den edozein pertsona izan daiteke. Bigarren pauso bat tratamendua da. Luzeak eta zailak izan ohi dira, eta pairatutako kaltea atera dadin ateak irekiko dituen interlokuziorako pertsona bat topatzen pasatzen dira, gertakaria normalizatuz, ez bere errua, ez arraroa ez dela uler dezaren zentzuan, errua eta estualdia landuz, horrela biktimizazioa ez dadin izan bere nortasun pertsonala identifikatuko duena. Biktima izatearen egoera gainditu behar da, boteretzea eta bere berezko nortasun pertsonala berreskuratu.

Azkenengo zehaztapen bat, biktima pertsona adingabe bat denean ematen den eskubideen talkari dagokionez. Hautzaroaren eskubideak beti dira ondasun goren bat, intimitaterako eskubidearen gain jartzen dira. Intimitatea eskubide bat da beti ere, horretan, botere jazarpenik ematen ez denean, parekidetasunetik eta aldebiko baimenarekin jarduten denean. Hautzaroaren kasuan ez da parekidetasun hori existitzen, nahiz eta baimena egon adingabea den pertsonaren partetik, gainera, baimen hori kontzientzia ezagatik, iruzurragatik edota nabarmenak ez diren mehatxuengatik eragindako baimena izan ahal den heinean.

8.- Familia abusuaren testuinguru bezala

Inork ez du familia harreman, afektu eta hazkunde pertsonaleko gunea dela zalantzan jartzen, ezta sozializatorako lehen testuingurua dela ere. Ez da ukatzen adingabeek segurua eta egonkorra den, eta mugak ezarriko dizkien bizikidetasun marko bat behar dutenik. Horretan, pertsona adingabeak dagokion papera bete behar du eta helduak berea, helduak adingabearengan duen autoritate hierarkia barne. Horrek ez du arazorik sortzen, paper erabat konplementarioak dira. Guzti hori ez dago zalantzan, helduak konbinatzen diren modua alde batera utzita, emakume-gizon, emakume-emakume edo gizon-gizon, hori bai, bere ingurune hurbilean, bai gizonezko zein emakumezko erreferenteak egon daitezzen hobesten.

Arazoa familia gunean gabeziak ematen direnean dator, adibidez, afektibitatearen kudeaketa indarkeriaren bidez egiten denean, botere jazarpenaren bitartez. Familia elkarrekiko loturez osatutako egitura bat da, zeinean mendekotasun handiena duten pertsonak adingabeak diren. Familiak suposatzen duen botere egitura indarkerien agerpena ekarri dezake, normalean boterea duen pertsonak mendeko duen pertsonaren kontra zuzentzen duen indarkeria eta, horren ondorioz, zaurgarria dena. Indarkeria honek HSaren forma hartu dezake beste edozein motatako indarkeria bat bezala, indarkeria hori burutzen duen pertsonak duen disfuntzioaren arabera. Edozein kasutan, familiako kide batek indarkeria erabiltzeak, maila handiagoan zenbat eta botere handiagoa duen, familia barneko harremanak kutsatzen ditu, lehen baino beranduago familiako kide guztiengan eragina izango duelarik. Eta arraroa da indarkeria sexuala dagoen familia batean hori izatea existitzen den indarkeria bakarra.

Azken hamarkadetan familia ereduaren eman diren aldaketak ez dirudi HSaren intzidentzia eraldatu dutenik, aldatu dira, baina patriarkatutik jasotako sostengatzen dituen balioak eraldatu barik. Lehengo familia oso hierarkikoa zen, norbanakoen sorkuntza eta askatasuna mugatzen zuen... ereduak eta rola zehatzak ziren, eta abusuak estatus horretatik ematen ziren. Orain, ez da horren hierarkikoa, irekiagoa da, sortzaileagoa eta garapen pertsonal askea ahalbidetzen du, rola ez daude hain zehaztuak. Lehen gurasoek zuten bizitza sexualaren eksklusibotasuna, orain ez dago hain argi; aita eta amak seme-alabekin lo egiten dute, eurekin dutzatzen dira... muga zehaztugabeago bat egoten hasten da, eta nolabaiteko nahasmena, eta abusuak, kasu askotan, argi-ilunen artean gertatzen da. Orain zailagoa da abusu sexuala zer den eta zer ez mugatzea, baina hala ere, aitzina baino gehiago ikusarazten da, lehen hitz egiten ez zen gai bat besterik ez zelarik.

Pertsona helduen konbinazio ezberdinetan oinarritutako familia ereduaren aldaketak ere arazo honetan aldaketa handirik ekarri ez duela ematen du, nahiz eta hau, berriz ere, egiaztatu gabeko automatikoki den datuak baino. Familiak, heterosexuak ala homosexuak izan, badirudi ez duela eraginik abusu gehiago edo gutxiago gerta daitezzen. Nolabaiteko ezberdintasuna ikusi daitekeen alderdi bakarra hau da: berreraikitako familiak, zeinean emakumeak bere aurretiazko seme-alabak eramaten dituen, non emakumearen seme-alaben kontrako abusuak ematen diren aitaordearen partetik. Edozein kasutan, inor ez da ausartzen esatera familia eredu berriek abusuaren desagerpena ekarriko dutenik.

9.- Administrazio publikoak

Administrazio publikoek jokatzeko duten paperari dagokionez dagoen hausnarketa nahiko erraza da: hauek jokatzeko duten papera eskasa da. Eta soilik funtzio bat egozten zaio: pertsona adingabeen babesaren bermatzaile izatearena. Betebehar hau fronte anitzetan zabalitzen da, baina, aurretiaz esandakoagatik, betebehar ezberdinak "betetzeke" bilakatzen dira, batez ere esku-hartzeari begira errekurso gehiago profesionalen eskuetan jarriz.

Detekzioari dagokionean, Administrazioa adi eta zelatan egon behar da, kontutan izanda Administrazioa oso zabala dela, legeak egiten dituztenetik, eskola edo anbulatorio bateko atezainetara. Funtzionariotza herritartasun osoaren eskubideak, eta adingabeen eskubideak bereziki, bermatuak egon daitezzen, erabateko erantzukizuna senti dezan sustatu beharko luke. Komenigarria izango litzateke jardunbiderako protokolo ezberdinak garatu, zitzan nor bere eremuari lotuta, hezkuntza eremuan, adibidez, eskola jazarpenarekin egin den bezala. Horiekin funtzionariotzari ere emango litzaike sostengua eta detekzioarako eta salaketarako jarraitu beharreko pausoak ere erraztuko lirateke. Zentro ezberdinen errealitateetara egokitu beharko liratekeen protokoloak, baita hau inguratzen dituzten komunitatera; norbanako errealitateetara egokitzen ez diren protokoloak ez lirateke baliagarriak izango, ez baitira funtzionalak kasu gehienetan.

Aurreko guzti hau borobiltzeko, profesionali bideratutako formazio espezifiko egongo litzateke, arazo honekin lotura duen eremu ezberdinetako profesional orori (hezkuntza sistema, osasuna, sistema judiziala, polizia...). Euren helburuak kontzientzia sortzea eta gaitasunak ematea izango lirateke, tresnak emanez arazoari modu egokian aurre egin ahal izateko.

Alde eta ertz anitzeko arazoa dela kontutan izanik, koordinatu beharreko departamentu ezberdinak direlarik esku-hartzen dutenak, ezinbestekoa litzateke, era berean, HSAei dagokionez zerbitzu multidiziplinarrak martxan jartzea, abusuak egoteko kasuan eman daitezkeen egoera ezberdinak baloratzeko ardurarekin, harremanak sortuz arazoaren konponbide hoberena bilatzeko helburuz honetan parte hartzen duten eremu ezberdinen artean.

Problematika sozializatzea, biktima eurak dituzten eskubideez jabetzeko eta eskuragarri dituzten errekursoez informatuko luketen mezuak barnebidu beharko lituzketen kontzientziario kanpainak abiaraztea suposatuko luke, jendarteari begira existitzen den arriskua, baita delitu hau egiteak ekarriko lukeen ondorioak ere bai.

Esplizituki adierazi den beste beharrezko errekurso bat, urgentziatzeko lehen esku-hartze baterako ez bada ere, eskola zentroen eskura terapeutak jartzearena izan da.

Bukatzeko, biktimen erreparazioari begira, administrazioari berreraikitze pertsonalaren ibilbidea hasi dezan erraztasunak eman ditzala eskatzen zaio. Bere desbiktimizazioarako prozesua ez dadin egon, kasik ezustekoz, gaitasuna izango duen profesional batekin topo egitearen menpe, edo epe luzeko terapia bat burutu ahal izateko diru nahikoa edukitzearen menpe.

10.- Justizia

Justizia sistemaren jarduna da arazo honetan parte hartzen duten eremu guztien artean profesionalentzako suposatzen duen borroka handienetako bat. Euren begirunea honekiko itxaropenaren eta mesfidantzaren arteko dantzan dabiltzan ikuspuntu ezberdinetatik ibiltzen da, batzuetan kontrajarriak diren ikuspuntu eta iritziak, alegia.

Gehienak, ordea, bat datoz elementu batean, biktimentzako ordaingarri eta konpontzaile bilakatzen dela: justizia, abusuak suposatutako esperientzia traumatikoaren lanketan oinarritzko gakoa izan daiteke. Biktima justiziarengana jo eta honek aintzat hartzen dituen heinean, baliodunak direla sentitzen dute euren burua eta euren erruduntasuna desagerraraztera laguntzen die. Justiziaren bidezko erreparazioa mugari garrantzitsu bat suposatzen du bere berreraikitze prozesuaren baitan bidegabekeria bat pairatu dutela aitortzen baita, eta gertatutakoaren errua pertsona abusatzailearen gain erortzen delarik ikusita.

Kontu bat parentesi modura, kasu hauek sistema judizialean sartzeko dituzten bi ibilbideen arteko ezberdintasun bat zehazten da. Auzibide zibila baditu bere konpetentziak: zaintza banaketa, jagoletzak... eta hau, biktimarentzat, adeitsuagoa eta atseginagoa da, beste gauza askoren artean, adingabea den pertsonaren interes gorena hartzen duelako kontutan. Auzibide penala ordea, abusuetan eta erasoetan oinarritutako kasu larrienak hartzen dituen delarik, erasokorragoa da biktimarekiko, eta pertsona adingabearen eskubide gorena kontutan hartzen bada ere, errugabetasun-presuntzioa sartzan da jokoan, eta delitua beran eta salatua izan den pertsonan zentratzen da maila altuago batean, biktima bigarren maila batean geratuz. Auzibide penala da kritika gehien batzen dituen eremua.

Orokorrean, justiziaren eremutik kanpo, hau akatsez beteriko eremu bat bezala ikusten da. Mutur batean sistema zital bat dela pentsatzen dutenak kokatuko lirateke, inongo arazorik konpontzen ez duena, mendekua baino kudeatzen ez duena. Badago bere kritika lasaitzen duena ere, justiziaren lana aitortzen duen heinean, baina nahasia dagoela azpimarratuz, sensibilizazio eskasa duela eta formazioa falta duela ere, asko luzatzen diren prozesuen bidez jarduten duela birbiktimizazioa erraztuz, eta urrunegi kokatzen den eszenatoki batetik burutzen duela bere lana, errealtatetik urrun, eta epaile ezberdinen arteko, baita epai ezberdinen arteko, koherentzia eza agerikoa delarik.

Batak zein besteak ados jartzen dituenik badago ere, ordea. Zera da: gaur egungo sistema judiziala ez duela biktima zaintzen, ez baitu inondik inora justizia restauratiboaren kontzeptua barnebiltzen. Justizia, gaur egun ulertzen den moduan, delituan eta erasotzailean jartzen du bere joko puntua, bai bere erruduntasuna probatzeko beharrean, bai ezarri beharreko zigorrari dagokionez eta bere birgizarteratze aukerei dagokienez. Guzti hau kontutan izatea ez da berez gaizki dagoen gauza, gaizki dagoena da, paraleloki, ez dela biktima kontutan hartzen, jardun ardatza berengandik erabat aldentuta dago bere babesarekiko zein kalte ordainarekiko begirunerik ez dagoelarik. Justizia ez dago jarduten adingabe neska eta mutilen babeserako zein delitu bat burutzeagatik salatua izan den pertsona baten erruduntasuna erabakitzeke. Horregatik, delitua burutu duen pertsona kartzelan bukatzen duen arren, biktima ez da beti erabat aitortua sentitzen.

Justiziaren aldetik, jasotzen dituzten kritika gehienak aitortzen dira, baita oso motela, astuna eta aldaketei begira zurruna den sistema bat optimizatzearen beharra ere. Baina badaukate keza bat ere bai, alegia, ondo egiten den lana ez dela ikusarazten, eta azkenengo hamarkadetan eman diren hobekuntzak ez direla azpimarratzen. Nabarmentzen da, beharrez protokolizatuegi dauden prozesu batzuek dituzten muga inposatuekin lan egin behar badute ere, epai-organoak adingabeekin harremana duen guztia adeitasunez tratatzeko esfortzua egiten dutela eta arreta handia jartzen dutela horrelako kasuak ailegatzen direnean. Euren ikuspuntutik, iritzi publikoa, eta askotan bere esparru batzuetako profesionalak ere, ez direla kontziente horrelako gaietan ikerketa prozesuak eta probak lortzeak eta indartzeak daukan zailtasunaz, baita sententzia baten oinarria eta argudiaketa lantzearenaz ere.

Beste alde batetik, prozedimenduetan hobekuntza handiak egon direla ere uste dute, bai peritaietan zein adingabeek horrelako prozesuetan egin behar duten ibilbide malkartsuan ere, bere birbiktimizazio eta beharrezkoa ez den esposizioa (adituen partetik hartu beharreko testigantzak, zirkuitu itxiko gelan biktimak parte ezberdinekin inolako kontakturik izan ez dezan, instantzia judizialen aurrean ahalik eta deklarazio gutxien egin ditzaten, inolako ikus kontaktu edo kontaktu fisikorik salatua izan den pertsonarekin...) ekiditea bilatzen duten bitartekoak ezarriz ere. Baina aitortzen dute ere -eta euren esanari jaramon egin dadin espero ere- justiziak ekitea nahi izanez gero, ezinezkoa dela pertsona adingabearen eta sistema judizialaren artean egon behar duen harremana ezabatzea, eta berekiko "zero inpaktua" ezinezkoa dela.

Eremu honetan ematen den gako liskartsuenetako bat biktimari ematen zaion sinesmenaren eta eskubide bat den errugabetasun presuntzioaren arteko talka da. Inork ez du zalantzan jartzen ezinbestean bermatzailea izan behar duen justizia bateko sistema prozesalaren oinarritzko printzipio horren ezinbestekotasuna. Bidegabekiaren kontrako segurtasuna ematen du eta oinarritzko eskubide bat bezala aitortzen da. Arazoa sistema kanpotik dator. Eskubide hori haitzaki bezala erabiltzen dela esaten da biktimaz behar bezala ez arduratzeko eta bere testigantzari balioa kentzeko.

Sistemaren erantzuna hainbat argudio erabiliz ematen da. Lehendabizi azpimarratzen da zein zaila den sinesmenaren kontzeptuarekin lan egitea. Lekuko barik aurrera eramandako delitu baten inguruan ari gara, edo biktimaren borondatean oinarritzen dela, bere onarpenean. Honek esan nahi du soilik parte baten kontaketa oinarritzen den subjektibizatutako delitu bat dela. Kontaketa hau benetakoa edo faltsua den zehaztea ez da erraza, baina badaude sinesgarritasunaren neurketarako diren teknika espezifiko batzuk. Badira burutzen diren elkarrizketen edukiaren analisi zurruna inplikatzan duten teknika kualitatiboak. Oso garrantzitsua da lehendabiziko kontaketa, pertsona adingabearen kontaketa espontaneo, oraindik pertsona helduek baldintzatu ez duten hori, izan ere, kontziente edo inkontzienteki, helduek baldintzatu dezakete gertaeraren pertzepzioan edo kontaketa erabilitako lengoian. Justiziaren eremuko profesionalak bat datoz pertsona adingabeek ez ohi dutela horrelako gai batean gezurrik esaten baieztatzean eta, euren iritziz, testigantza faltsuen bazterketa on bat egiten da.

Baieztatzen dute, halaber, justizia eremutik ez dela biktimarekiko ezta bere sinesgarritasunarekiko aurreiritzietatik abiatzen; eta gauza ez da biktimari sinesten zaion ala ez, baizik eta salaketa egiazkoa dela sostengatuko duen datu nahikoa metatzen. Eta horiek lortzearen zailtasunaren aurrean, biktimaren testigantzak bere pisua badauka. Baina, hala eta guztiz ere, froga eraiki behar da. Eta oso zaila da, normalean ez baitago ebidentzia fisikorik eta ezin dira lesioak objektibatu. Gauza oraindik gehiago zailtzen da neskato edo mutikoa pubertaro aurretikoak direnean, eta gertakariak urtek pasatu ostean salatu eta argitara ateratzen badira. Egoera honetan, kontakizunarekiko zuhurtziaz abiatzen da, baina ez konfiantza ezatik, are gehiago, euren iritzitan justiziak izugarriko froga-balioa ematen dio biktimaren testigantzari, sinesgarritasuna ematen eta bakoitza bere egoeraren arabera kontutan hartuz. Puntu honetara helduta garrantzitsua da perituaren ebaluazioa. Hau epai-ikerketara eransten da eta kontutan hartzen da. Perituak epaiketara doaz eta itaunketa gogor eta sakonen jomuga dira. Baina ez daukate erabateko balioa, legeak kasuan metatzen diren elementu guztien, eta eskuragarri dauden proben arabera, baloratzea behartzen du. Guzti honek erabakitzen du, bere osotasunean, salaketa izan den pertsona zigortzeko nahikoa argudio dauden edo ez.

Deklarazio batek sendotasun juridikoa izan dezan eta errugabetasun presuntzioa austeko kargu-proba nahikoa izan dadin, hiru baldintza bete behar ditu: 1/ sinestezintasun subjektiboa ez izatea, hau da, biktimak pertsona zehatz baten kontrako salaketa bat jaurtitzeko inongo motibazio faltsurik ez duela ziurtatzea (mendekua, interesa, kalte egin nahia...); 2/ leporatze iraunkorra, hau da, kontakizuna beti berdina izatea, inongo inprobisaziorik gabe eta hutsunean betetzeko beharrik gabe...; 3/ perituen, medikuen, epai-medikuen eta abarren baieztapenak, gertakizunen kontaketa koherentzia emango diotenak, alegia.

Justiziak alde guztiak entzun behar ditu froga objektiboak baloratuz, eta epailea ezin du bere uste pertsonalak oinarri hartuz jardun. Honek ez du esan nahi nolabaiteko aukera pertsonalaren existentzia ez egotea, eta epaile batek froga objektibo nahikoa ikusten duen toki berean, beste batek ez ikustea, edo aldrebes. Baina, nolana ere, bakarrik zigortu dezakete froga nahikoak baldin badaude eta absolbitu behar dute itxurazko zalantza egotekotan. Epailtza munduaren arabera, ez da zuzena errugabetasun-presuntzioaren eta biktimaren sinesgarritasunaren arteko dilema planteatzea. Justizia bermatzaile batean gaude eta berau jarraitu behar dugu, ondorioz, biktima denaren babesa ezin da errugabetasun-presuntzioaren gainetik igaro.

Guzti hau esanda, biktimarekiko tratamendu egokia konpondu gabeko arazoa dela aitortzen da, bereziki, bere birbiktimizazioari dagokionez. Justiziarekiko alde kritikoan, berau makina zapaltzaile bat bezala definitzen dute, erabat zurruna den egitura bezala, biktimarentzako bitarteko kaltegarria, bere funtzionamendua ulertezina den eragile baten aurrean kokatuz, arrotz eta beldurtuta sentitzen delarik. Ez dago, gainera, biktimarekiko izan beharreko jarrera zehazten duten jarraibiderik, ondorioz, bai ongi tratatua edo gaizki tratatua sentitzea epaile bakoitzaren jarreraren arabera izango da. Eta birbiktimizatzeko nahirik ez badago ere, hain da oldarkorra sistema hau lortzen duela.

Sistema judizialek, hain zuzen, onartzen dute hau horrela izan daitekeela, baina azaltzen dute euren aparatuen konplexutasunak nahitaezkoak diren prozesu bermeak ziurtatzeko beharretik sortzen dela. Euren ustetan, orokorrean, arduraz jokatzeko da fiskalaren, abokatuen,

epai-medikuen... partetik eta, prozesuaren beraren mugetatik harago, normalean errespetuzkoa izan dadin saiatzen direla. Baina nolabaiteko birbiktimizazio gradu bat ekiditea ezinezkoa da, ezin baita salaketa barik inor auzipetu eta, ostean, jarraitu beharreko pausoak jarraitu barik (instrukzio epailea, epai-medikuaren perita lana, epaiketa...). Biktimarekiko kalteak ahalik eta gehien gutxitzen saiatzen da, baina bere testigantza eta igaro behar dituen azterketak ezinbestekoak dira.

Mutiko eta neskatoen kasuan instrukzio epaitegian euren deklarazioa egin dezaten eta parte guztiekin epaiketara joatean datza. Testigantza bakarrik peritu lanaren ardura daukan pertsonaren aurrean hartzen da, telebista zirkuitu itxia duen gela batean. Pertsona honek, formazio maila egokia izan behar duena eta berme guztiak zainduta, defentsaren, fiskaltzaren eta akusazioaren partetik jasotzen ditu pertsona adingabeari egin behar dizkion galdera guztiak. Hau grabatu egiten da eta epaiketan erreproduzitu egiten da mutikoa edo neskatoa itzuli behar ez izateko. Kasu batzuetan, adingabea berriz joateko eskatzen bada, konferentzia bidez eta beste gela batetik deklaratzeko saiatzen da. Erasotzailea aurrez-aurre izan dezala ekiditen. Adingabe nagusiagoak diren, edo helduen kasuetan, epai-gela berean deklaratzeko dute bionbo batez babestuta. Epaiketa prozesuaren kaltea begi-bistakoa da eta guztiak dira horretaz kontziente. Gaur egun mugiezina diren pausoak daudela baieztatzen dute, baina hobekuntzarako tarte nahikoa badagoela ere aitortzen dute.

Zigorrek eztabaida bikoitza irekitzen dute, alde batetik ea beharrezkoak diren, eta bestetik, ea nahikoa diren. Delitua zigortua izan behar dela aho batez defendatzen da, ez baita zigorgabetasunerako espaziorik egon behar, honek delitua suposatzen duten jardueren zigortzea gizarte behar bat bilakatzen duelarik, alegia, ekinbide oker bat gaitzestea dakarrelako. Badago ere defendatzen duena inongo arrazionaltasunik gabeko botere argi eta garbia burutzearen aurrean -horrela ulertzen delarik pertsona abusatzaileak pertsona abusatuari inposatzen diona-, mehatxua suposatzen duen beste botere handiagoa bat erabili behar dela lehena eman dadin ekiditeko. Bestelakoa da prebentziorako edo disuasiorako duen gaitasuna. Honek baiezkota eta ezekota defendatzen duenen arteko zatiketa eragiten du, baina berriz ere akordioa sortzen duena da abusatzaile posibleak delitua zer den ezagutu beharko luketela, dituen ondoriok eta dakartzan zigorrak, eta zigorrak eurak bakarrik, abusatzaileengan lanketa bat egin barik ez duela berrerortzea saihesten.

Nahikoa diren ala ez eztabaidari dagokionez, hau da, zigorrak burututako delitura egokitzen badira ala ez, iritziak ezberdina dira ere. Juristek uste dute zigorren aukera sorta nahiko malgua dela, orokorrean zigor nahiko gogorrak ematen direlarik eta onura penitentzialentzako aukera eskasarekin. Badago ere delitu larrientzako zigorrak hankamotz gelditzen direla esten duenak. Edozein kasutan, orokorrean dagoen iritzia zera da, zigor handiago edo txikiago batek ez duela eraginik ez prebentzioan ezta kartzela sistemaren birgizarteratze gaitasunean.

Delituaren preskripzioak zalantza asko sortzen ditu, nahiz eta inork ez duen konbentzimendu osoz defendatzen. Bere desagerpenarekiko erreserbak adierazten dituzten artean euren argudioa da denbora asko pasa ostean edozein gertakari frogatzearen zailtasuna, baita segurtasun juridikoaren printzipioa eta hau mugiarazten duen fede ona ere bai, hots, alde batetik eskubideen jabe den horren arduragabekeria eta utzikeria zigortzea zentzuzko epe batean ez gauzatzeagatik, eta bestetik, Estatuak bere buruarekiko ezartzen duen ius puniendiaren mugaketa, horrela zigorraren funtzioa kontutan hartuz, baita ustez erruduntzat hartzen den pertsonaren egoera ere zigorra jasotzearen mehatxua behar baino gehiago luzatu ez dadin.

Iritzi zabaldua da, hala ere, ez dagoela irudi hau mantentzeko funtsezko argudio nahikorik. Honetarako argudioa litzateke abusuaren ondorioak ez dutela preskripziorik, justiziaren jardutearen gaitasuna baliogabetzen duela (pairatu izan eta urte asko igaro ondoren azalarazten den indarkeria mota bat denean), zigorgabetasunerako ate ireki bat suposatzen duela, biktimak justiziaren bidezko erreparaziora duten eskubidea ere galtzen dutela, babesgabetasuna sortzen duela... korrante honen arabera, ez da dilemarik existitzen biktimaren ikuspuntutik enfokatzeko bada: delitua preskribitu ez dezala biktimaren onurarako esku-hartzea errazten badu, delitua ez luke preskribitu behar. Lehentasuna ez litzateke pertsona erasotzailea izango, baizik eta biktima den pertsona, bere aitortza eta erreparaziorako duen eskubidea. Hori ukatzea birbiktimizaziorako beste modu bat da. Gauza ez da delitugilea den gizon edo emakumeak bere erruduntasuna ordaintzen badu, irizpidea ez da hau bezalako delitu

bat barkatu ahal den ala ez, irizpidea da biktimak bere bizitza berreraiki ahal izatea, pairatu duen bidegabekeria baten aitortza abiapuntu hartuta.

Azkenik, aldi berean eskatua eta eztabaida sortzen duen beste neurri batera heltzen gara, delitugileen seinalapen publikoa. Posizionamendua, kasu honetan, argi jotzen du ezezkora. Lehendabizi inolako erabilgarritasunik aurkitzen ez zaiolako eta hori egitea mendekuak motibatuta dagoela ikusten baita. Gainera, bere inguru sozial osoa kriminalizatuko litzateke, bere familiako kideak eta hurbileko jendea. Existitzen da ere, horrelako neurri batek jendeak justizia bere esku hartzera eraman dezanaren arriskua dakarrela esaten duena.

Bigarrenik, birgizarteratzearen eskubidearen kontra doalako: honela indarkeria mota burutzen duten pertsonengan ezartzen diren birgaitzerako tratamenduak eraginkortasuna maila nabarmena dute, eta berrerortze-tasa ez da oso altua, bereziki ikasitako indarkeria burutzen dutenen artean. Esposizio publikoa, behin gizarte sorra ordaindu eta gero, birgizarteratzerako motibazioa txikituko luke eta berrerortze maila handituko luke.

Bakarrik salbuespen bat jartzen zaio iritzi honi, elkarbanatutakoa den salbuespena gainera. HSAko delitu bat egin duten pertsonak ez dezatela hainbat eremu zehatzetarako sarbidea izan, alegia, adingabeekin elkarbizitza hurbil eta iraunkorra suposatzen duten eremuak. Ikuspegi honetatik, sostengua ematen zaio 2015. urtetik aurrera indarrean dagoen natura sexualeko delitu aurrekarien erregistroari eta penalen ziurtagiriaren exijentziari lan, aisialdi... eremuetan adingabeekin jardungo den edonorentzat.

11.- Komunikabideak

Aho batez erantzuten dute aditu denek komunikabideek HSAren inguruan garrantzizko papera jokatu dezaketela eta jokatu behar dutela esaten, bai arazoaren ikusaraztean zein gizartearen sentsibilizazio lanean ere. Erakusleihu izugarria dira honen alderdi anitzak erakusteko, aldi berean, abusuen fenomenoarekiko enpatia eragin eta mobilizazioz sustatu dezaten balio eta jarreraren transmisio kate bezala jardun dezaketelarik. Adibide bezala indarkeria matxistarekin gertatzen dena adierazten da, zeinean komunikabideek paper nabarmena izan duten arazo hori lehen lerroan jar dadin.

Komunikabideak ordea, ez dirudi HSAen gaia bete-beten jorratzeari ekin diotenik. Indarkeria mota hau gutxi agertzen dela esaten da eta argudioa litzateke, adibidez, komunikabideek adingabeetatik ihes egiten dutela dauzkaten zailtasunengatik, legalak barne, hauek ateratzeko, edo gaiak duen sentsibilitateagatik beldur diotelako haurtzaroz hitz egitera, are gehiago indarkeriaz ari bagara. Eremu profesionaletik, ordea, argudio hauekin ez datoz bat. Aitortzen dute haurtzaroa, orokorrean, ez dagoela komunikabideen eguneroko agendan, ezta editoreen buruetan ere modu erregularrean hauekin lotuta dauden gaiak. Baina hau ez da oztopoa intereseko gai bezala hartzen direnean. Izan ere, HSAei dagokienez, ez dago eskrupulu handirik ezagutzen diren kasuak ikusarazteko, bai kanpoaldean gertatzen diren abusuak baldin badira -sexu turismoarekin lotuta baldin badago, adibidez-, bai eremu hurbiletan gertatzen direnak, Eliza bezalako erakundeekin lotuta egon ala ez. Ez agertzearen arrazoia bilatu behar dugu, elkarriketatutakoen esanetan, jarraian jorratuko ditugun beste eremu batzuetan.

Komunikabideek ez dute abstraktuan lan egiten, gauza zehatzen gain baizik, errealitatearen gain, edo hobeto esanda, eguneroko errealitateen gain. Gai ezberdinak jorratzeko garrantzi soziala duten gertakariak behar dituzte, notizia bilakatu daitezkeen gertakariak, alegia, bai aktualitate zehatzekoak izan (albistegiak kasu) bai denborazkanpoko gai bezala landu daitezkeenak (erreportajeak, elkarriketak...). Ez dira sartzen gizarte garrantziaren kontzeptua zer den azaltzera, baina komunikabidearen arduradunarentzat nolabaiteko intereseko gaitzat hartzen dituen gaiak izan behar direla ulertarazten da. Gai ezberdinak jorratzerako orduan bi aspektu ezberdinak behar dira: kantitatea eta kalitatea.

Kantitatea, hau da, gai zehatz baten frekuentzia, garrantzi sozialaz gain, gertakarietarako sarbide gaitasunak emanda dator, bai komunikabideak burututako ikerketengatik, bai iturri ezberdinek zuzenean emandakoa delako izan daitekeela. Komunikabideek gaur egun duten ikerkuntzarako gaitasuna erabat murriztuta dago, beraz, ezin da konfiantza izan komunikabide batek, bere kabuz eta kanpo ekintzarik gabe, edozein gai jorratuko duenaz. Ondorioz, edozein

gai landuko bada komunikabideak bilatuko dituen iturrien edo komunikabidea ornituko duten iturrien arabera izango da, ez besterik. Zentsu honetan, HSAen inguruko arazoa bikoitza da: komunikabideak ez duela ikerkuntzarako bitartekorik eta iturriak oso urriak direla; honi gehitu behar zaio fenomenoak berak dituen berezitasunak direla eta, hau ikusezina izatera jotzen duela, hau pairatu dutenak (biktimak eta esku-hartzen duten biktimek) ez dute komunikabideetara joko. Baina gainera, ez dago egituratutako mugimendu sozialik, eta arazo hau salatzeko indar nahiko duena, komunikabideen aurrean erreferentzia bezala ager dadin.

Hala ere, HSArekin lotura duten kasuak daudenean, komunikabideak ez daukate horren berri emateko arazorik; errealtateari helduta, komunikabideetako ikusaraztean ematen den borroka ez da hainbesterako, aldez aurretik dago irabazita garrantzi nahikoa eta soberako zama emozionala duen gaia baita, berarenagan arreta jarri dezaten.

Benetako arazoa ez da kantitatea, kalitatea baizik, gaiaz egiten den tratamendua, nola jorratzen den, alegia. Eta baieztapen honetan bat egiten dute bai kazetariak, baita beste eremuetatik etorritako profesionalek ere. Zentzu honetan, hiru faktore parte hartzen dutela esan behar dugu. Lehena, komunikabideen sentsibilitatea da, ez ohi dela joaten emozionaletik eta gertakari zehatzetik harago, kontutan izan barik arazoaren izaera soziala, globala, elkarbanatutako arazo bezala eta hurbilekoa dela. Bigarrena, komunikabideak dituen interesak dira, oso anitzak direnak, bai enpresak diren heinean bai ideologikoki zentzu zehatz batean zehaztuta dauden antolakundeak direlako eta, ondorioz, informazioa ematek harago doazen nahiak dituztelarik. Eta hirugarrena, eta agian garrantzitsuena, formazioa da, edo hobeto esanda, formazioa eza. Ez da gizarte informazioan espezialiterik existitzen, are gutxiago HSAan zentratutako formaziorik, komuna den hizkuntza baten erabilera, berez konplexua den gai baten ulermena eta bere islapena komunikabidean modu egoki, zorrotz eta ez kaltegarri batean jorratzea izugarri zailtzen duena.

Horrela gauzak, sexu abusuei buruz egiten den tratamenduan existitzen diren gabezia ezberdinak azpimarratzen dira, sexu abusuei buruz egiten den tratamendu sentsazionalistarekin lotuta eta zorrotzasun ezan oinarrituta, batez ere. Horren aurretik nabarmentzen da komunikazioaren profesionalek izan behar duten eta beti kontutan ez duten printzipio deontologiko bat: minik ez ematea. Printzipio hori, horrela ulertzen dute elkarrizketatutako pertsonetako batzuk, informaziorako eskubidearen gainetik kokatzen da, beraz, gertakari bat publikatu aurretik erabaki hori sortu dezakeen kaltearen eta izan ditzakeen ondorioen arabera baloratzera behartzen du, batez ere biktimentzako. Horrekin guztiarekin, ikusten da profesional guztiek ez dutela berdin jarduten, eta bai, badaudela modu egokian lan egiteko esfortzua egiten dutenak, eta hauek berauek dira diotenak, orokorrean, kontakizun zehatza gainditzen saiatzen direla, eta pertsona adituak direnen laguntzarekin kontaktu nahi dutenak nola jorratzearen eta fenomenoaren ulertarazteko jarraibideak eman ditzaten; beste zenbait gauzen artean errespetua ematen duen gai bat delako, eta kontu handiz ibiltzen saiatzen da, informatiboa baino ez denaren bidetik irteten ari direla sumatzean, adingabearen intimitatea zapaltzen ari denean edo berezko berriarentzako garrantzitsuak ez diren datuak jorratzen ari direla ikusten dutenean, morboaren lurraldean sartuz.

Baina hau da, hain zuzen ere, kritiken jomuga, abusuekin lotutako informazioei eman ohi dioten tratamendua. Leporatzen zaiena da, alegia, lehenago azpimarratzen genuen bezala, zorrotzasun falta eta kasu gehiegitan sentsazionalismoan erortzea.

Sentsazionalismoari dagokionez, errealtatean ez da beste gai batzuekin egiten denaren oso urrun dagoen zeozer, eta publikoaren nahiengatik eta audientzia mailengatik erabat markatuta dator, batez ere telebistaz mintzatzen bagara. Horien aurrean profesional askotan eskrupuluak galtzen dira. Horrela, bost bereizgarri ezberdin ditzakegu gaia nola agertzen denari dagokionez:

- gai isolatu bat bezala, gertakari partikular eta zehatz bat, inguruan beste gertakari batzuekin inongo loturarik ez duena edo dinamika eta egitura sozialetan finkatzen ez den zerbait bezala;
- testigantzei dagokionez fase gogor batekin, biktimarena izan heldua den kasuetan edo bere inguruko pertsona izan, familiako kideak, auzokideak, kideak...;
- hausnarketan eta analisisan sakondu barik;

- informazioaren aldetik garrantzirik gabeko deskripzioen ugaritasunarekin eta detaile lizunen azpimarrarekin;
- atalka banatuta, honen helburua tentsioa eta audientzia mantentzea delarik, berriaren jarraipen zintzo bat egitea baino;
- zarata askorekin, alderdi makur eta bizarroenak nabarmenduz.

Edukiak modu honetan marraztea ez da ondorioz gabe geratzen, ondorio hauek bost puntutan laburtuko ditugularik:

- ez da gaia bere globaltasunean ikusten eta ez dira fenomenoak dituen inplikazio sozialak ulertzen, urruneko arazo bat denaren ikuspegia indartuz, baita topikoak ere;
- salatzeraz animatu litezkeen pertsonengan beldurra sartzen du;
- birbiktimitateak kateak birproduzitzen dira, fokuekiko gehiegiko esposizioagatik, hirugarren pertsonak botatzen dituzten funtsik gabeko iritziengatik, gertakaria behin eta berriz ere bizi behar izateagatik, intimitatearen zapalkuntzagatik, zehaztapenen baimenik gabeko kontaketaagatik...;
- biktima erruduntzeko espazioak zabaltzen dira;
- inolako hausnarketan oinarritu gabeko berehalako erreakzioa sustatzen da.

Sentsazionalismoari zorrotasun falta gehitu behar zaio, elkarrekin etorri ala ez. Fenomeno honek duen lehen arrazoa gizarte informazioan adituak diren profesionalen falta da. Informazio mota hauek bigarren mailakoak bezala hartu ohi dira, kirola, politika edo ekonomiaren azpitik, adibidez. Orotariko informazioaren atalean sartu ohi da, ondorioz gai honetan formazioa duten profesional oso gutxi daudelarik, ezta honekiko benetako interes zehatzik dutenik. Eta HSA kasuen zehaztasunera begira, ez daude ezta espazio batera edo bestera egokitzeko irizpide argirik, ez dago gidarik ez mota horretako libururik gai hau lantzeko irizpiderik ematen dutenik eta, kasik berri gehienekin gertatzen den bezala, ez zaio jarraipenik ematen. Modu honetan, zuzenak ez diren datuak ematen dira, gaia ikuspegi orokor batetik enfokatzen da, egokiak ez diren pertsonak elkarrizketatzen dira... orokorrean, eta laburbilduz, informazioa kalitatea bermatzeko behar bezalako bitartekorik gabe lantzen da.

12.- Hezkuntza

Gurekin hitz egin duten hezkuntza eremuko profesionalak azpimarratzen duten bezala, hezkuntza sistemak ez du oraindik arazo hau arazo propio bat bezala hartu, eskola jazarpenarekin bai gertatu den bezala, adibidez. Ez dio kontraesan bat izateari uzten, batez ere kontutan izanda, aurretik komentatu dugun bezala, detekzioaren lehen leerroan kokatzen dela. Eta hau horrela da adingabeek eskolan igarotzen duten denbora guztiagatik, irakaslearen eta ikaslearen artean sortzen den harreman luze eta estua dela eta, eta leku bikain bat delako komunikazio espazioak irekitzeko sexualitateaz hitz egin ahal izateko eta kasuak azalarazi daitezen.

Errealitateak diosku ezberdintasun oso handia dagoela haur eta lehen hezkuntzaren eta bigarren hezkuntzaren artean. Haur eta lehen hezkuntza ematen den harremana oso estua da eta irakasleek oso ondo ezagutzen dituzte umeak, harreman hurbilago bat dago, adingabeekiko enpatiaz bete, horren indarkeria kasuak lehenago detektatu daitezen ahalbidetzen duelarik. Bigarren hezkuntzan ordea gutxiago ezagutzen dira ikasleak. Harremanak urrunagokoak dira, irakasleak pertsonen sailkapen sinpleagoak egitera jotzen du, eta askotan manikeoak. Harremanak, ikasle bakoitzaren arazo pertsonaletan sartu behar ez izateko, erosotasunetik diseinatzen dituzte. Ikasleen aurrean jarrera defentsiboan jartzera jotzen dute. Egia da presio akademikoa oso gogorra dela, baina batzuetan, hori, ikasleekiko urruntze bat edukitzeko aitzakia besterik ez da. Sistemak ez du arazo ezberdinak konpontzen laguntzen, ezta irakaslearen inplikazio maila igo dadin. Badaude ardura hori sentitzen ez duten irakasleak

gainera, asignatura bat ematen dute eta listo, eta edozein arazo pertsonal eta harremanetako orientazio taldeari bidaliz.

Esaten ari garenaren sintoma argia da irakasleagoak aitortzen duela ez dakiela HSAz ezer ez, formazio iraunkorrean presente ez dagoen gaia, ez da tutoretza-lerro bat eta soilik ez ohiko kasu batzuetan ezagutzen edo detektatzen dira abusuak. Are gehiago esaten dute, irakasleagoak ez dauka sexualitate gaien formaziorik eta kurrikulumean ez dela ere hezkuntza prozesu osoan zeharko etengabeko eduki bat bezala agertzen, horri begirako pertsonal formatuarekin.

Arlo honetako profesionalek esaten dutenez, bada garaia ikasleak norbanako gai eta autonomo bezala garatu daitezen irakasleagoak jokatu behar duen paperaren inguruko hausnarketa sakon bat egin dadin. Hezkuntzarekin lotura duten pertsona guztiak adingabeen garapenari begira bere lana eta bete beharko luketen funtzioa birplanteatu beharko dute, duten entzuteko eta prebentzioarekiko gaitasuna aztertuz. Irakasleagoak barneratu behar du ikasleentzako erreferentziako pertsona helduak direla eta pertsona adingabeen babesaren erantzukizuna dutela, eta kontziente izan daitezen familia huts egiten duen kasuetan, eurak direla erreferentziako lehen pertsona helduak. Gainera, nahi ala ez, irakasleagoa ez baita edukien igorle huts bat, hezitzailea da.

Irakasleagoa ez da terapeuta, ezta izan behar ere, horretarako pertsona espezialistak daude, baina bai izan beharko luke ikasleagoarekiko konexio handiagoa. Ikuspegi honek inplikazioak ditu, alegia, hurbiltasunetik eta segurtasunetik abiatutako elkarrizketarako espazioak bideratzea ahalbidetuko dituzten konfiantzazko loturak sortu behar dituzte ikasleekin, biktima batekin topo egitekotan, honek bere ezinegona murriztu dezala ekarriko luketenak, ireki dadin eta adierazi ahalko litzatekeena beldurraren eta erruduntasunaren zamarik gabe. Eta irakaslea edukien igorle soil bat bezala jardutera murriztuko balitz ere, zeozer gaizki dabilenaren indikadoreak zeintzuk diren identifikatzeko gai izan beharko litzateke.

Esan den bezala, ez dago pertsona adingabeak HSA argi eta garbi pairatzen ari dela adieraziko duten adierazle pakete zehatz bat. Horregatik, bere garapen pertsonalean, sozialean edo eskolakoan gabeziaren bat adieraziko lukeen edozein jarrera edo jokabideren aurrean adi egon beharra dago. Baina irakasleagoak, bere interpretazio baremoan txertatuta ez badauka jarrera disfuntzional edo autosuntsitzaile baten atzean HSAren kasu bat egon daitekeela, bere existentzia barneratuta ez daukalako da. Portaera horiek motibazio falta bezala jorratzera jotzen da, alde batera utzi dituzten eta adingabeaz kargu hartzen ez duten aita eta amak...; HSA detektatzeko berau edozein jarrera arraroren antzen agon daitekeenaren posibilitatea aintzakotzat hartu behar dugu.

Gaur egun eskola testuinguruan HSAren prebentziorako eta detekziorako protokolo errazak sortzen ari dira, irakasleei zuzendutakoak. Baina irakasleagoa ezin du bakarrik ekin, laguntza behar du; HSAk bezalako gauza batek egonezin maila altuak sortzen ditu irakasleen artean, kudeatzen ikasi behar diren egonezin egoerak, horregatik litzateke komenigarria talde bezala lan egitea, orientazio lantaldeak inplikaturik, baita abusuaren espezialistak liratekeen profesionalak ere bai, baita oinarrizko gizarte zerbitzuekiko koordinazioa sustatuz ere.

13.- Prebentzioa eta jardunbidea

Adostasunezko baieztapena da pentsatzea arazo bat ekiditeko egin daitekeen gauzarik hoberena hau prebenitzea dela. Bat datoz elkarrizketatutako pertsonak. Baina ohartarazten dute: HSAren gaien ez du edozerk balio eta kontu handiz ibili beharra dago ekidin nahi den mina baino handiagoa ez eragiteko.

Prebentzioaz mintzatzen garenean oso argi izan behar dugu zertaz ari garen eta kontu handiz eta jakituria nahikoarekin ibili. Sexu abusuaren pertsona helduen arazoa dela hartu behar dugu oinarriztat, ez adingabeena. Eta ez hori bakarrik, baita adingabeek ekidin ezin duten zerbait dela ere. Horregatik, irtenbidea ez dator adingabeek zuzendutako abusuaren inguruko formazioaren bidetik. Lehendabizi martxan jarri direnean euren eraginkortasun eza ikusi delako (Save the Children, Oslo, 2000). Bigarrenik, irakasten zaiena ondo hausnartu behar delako. Lehen mailako logikak esaten digu adingabe bati sexu abusia identifikatzen irakasten badiogu

bere burua defendatzen ere irakasten ari garela. Baina errealitateak diosku adingabe batek ezer gutxi egin dezakeela heldu bat berataz abusatzea erabakitzen duenean. Horren ondorioa suntsizaila izan daiteke, abusua ekidin ahal izan eta hori egin ez zuela barneratzen badu, biktima erruduntasun egoera oso latzean jarriko luke.

Prebentzioa, esku-hartzearen profesionalen esanetan, ez dator adingabeei abusuak zer diren eta hauek ekiditeko jarraibideak irakastetik; bizitzarako heziketa on batetik etorriko da, osasunerako hezkuntza programa egoki batzuetatik eta sexu hezkuntzatik. Prebentzioa askatasunez adierazi eta komunikatu daitezten helburu duten trebetasunen irakastetik dator; harreman osasuntsuak eraikitzen eta horrelako egoera bat ematen egotekotan konfiantzazko erreferente heldu argiak egongo diren eremu seguruak eskaintzetik. Bizitzarako eta osasunerako hezkuntza pertsona adingabeentzako enpoderamendu prozesu bat da, lehen haurtzarotik behar bezalako errekurso nahikoak izan ditzaten, abusua ekiditeko ez bada -nekez ekidin ahal izango baitute-, bai lehen bahit lehen kontatu dezaten. Eta hau bai familien inguruetik zein hezkuntza zentroetatik ere egin behar da.

Prebentzioa parekidetasunez hezteka ere bada. Kultura patriarkala erauziko duen genero irakurketa baten beharra dago. Prebentzioa ere arazo hau bere dimentsio sozialetik ikusarazteka da, bakoitzak bere posiziotik egokitzen zaion babes bermatzaile rola barneratzea, eta HSaren inguruan mantentzen diren eta bere arriskuak ikustea eta arazoaren detekzioa sailtzen duten mitoak apurtzea.

Sakonegiak izateko intentziotik urrun, eta administrazioaren inguruko puntuan aipatutakoak kenduta, hauek dira HSaren inguruko lanketa hobetzeko irten diren gomendioak:

.- **Ikerketa areagotzea.** Datuen eta informazioen gabeziak oztopo bat suposatzen du arazo hau modu zuzenean enfokatzeko orduan, baita esku-hartze egoki, zabal eta eraginkor baterako tresnak eta irizpideak ezartzeko ere bai. Bai intzidentziazko zein karakterizazio ikerketak beharrezkoak dira, baita eremu-jardunekoak ere. Beharrezkoa da ere existitzen diren datuak bere azterketarako publikoak eta eskuragarriak izan daitezen.

.- **Eskubideetan oinarritutako ikuspegia.** HSaren eremuan ematen den edozein jokabideak kontutan izan behar du adingabe neska eta mutilak eskubide osoko pertsonak direla, babes behar plus batekin. Fokua pertsona adingabeen jarrira egon behar du eta integrala eta parte-hartzailea den diziplinartekotasunean oinarrituriko modu batean egin behar da. Administrazioen kasuan, barneratu beharko dute politika publikoek herritarren eskubideei erantzuten dietela, kasu honetan haurtzaroarena, giza eskubideen zeharkako orientazio batekin. Adingabe neska eta mutilak eskubideen jabe dira eta administrazioek bermatu behar dituzte, eskubideak dituzten horiek politikan parte aktiboa hartu behar dutela esan nahi duena eta betebeharrak dituzten horiek kontuak eman behar dituztela ere, gardentasun osoz.

.- **Genero ikuspegia.** HSaren prebentziora eta desagerpenera bideratutako edozein ekintza genero ikuspegiak blaitu behar da, batez ere bizitzarako eta osasunerako hezkuntzatik egiten bada, edo biktima izandako pertsonenganako esku-hartzetik, hauen ingurua eta abusatzen duten pertsonetik. Genero ikuspegiak fenomeno bera, eta burutu beharreko ekintzak, argitasun handiagoaz eta egokitasunez ulertzeko angelu guztiak presente izatea ahalbidetzen du.

.- **Babesaren unibertsaltasuna.** Haurtzaroarekiko babesa elkarbanatutako ardurak bat da. Pertsona heldu guztiak dira adingabeen erantzule, ez bakarrik gurasoak. Era berean erantzule ere badira administrazioa eta adingabeak euren kargu dituzten instituzio eta pertsonak. Adingabeak ez dira inoren propietate, eta inork -euren tutoretza daukatenek ere ez- ez dauka euren gaineko abusurik burutzeko eskubiderik.

.- **Sentsibilizazio kanpainak inplementatzea.** HSaren dimentsio soziala, intzidentzia, larritasuna eta euren gain lan egitearen garrantzia eta pertsona helduek, erakundeek eta administrazioak duten elkarbanatutako ardurak azaldutako duten kanpainak martxan jartzea. HSA ikusarazi eta eraustea ezinezko bihurtzen dituen eta errealitatea distorsionatzen duten mito eta zentzugabeko ideiak eraldatuko dituzten kanpainak.

.- Adingabeari beti sinistea. Pertsona adingabeak gezurrik esaten ez duenaren eta abusuak kontatzen dituenaren beti sinetsi behar zaionaren axiomaren azpian funtzionatzea. Horrela ez jardutea erabateko babesgabetasunera botatzea esan nahiko luke, abusua baino kalte handia sortu lezakeen egoera. Eta gezurra esaten duela aurkitzeko kasuan, sinetsi ere, eta hortik abiatuta, portaera horren zergatietan sakondu arazo baten-baten ondorio delako ere.

.- Justizia errestituratu bidea egin. Justizia bere erdigunean pertsona, eta ez delitua, jarriko lukeen modelo baterako bidea egin beharko luke, lehendabizi biktima, gero baita delitua burutu duen pertsona ere, birgizarteratzeko dituen posibilitateak baliatuz. Biktimaren kasuan ondorengoak bezalako aspektuak hobetu beharko lirateke:

- judikaturako eta justizia sistema osoko kideentzako HSAren inguruko formazio espezifikoko programak martxan jartzea;
- HSAko kasuak jorratuko dituzten epaitegi bereziak irekitzea edo, gutxienez, kompetentzia egokiak izango dituen epaitegi batean zentralizatzea, jakituria espezifikoak eta urrats prozedimental delikatuak eskatzen dituen gai bat da eta;
- epai prozesuak azkartzea, epe kontuek berebiziko garrantzia baitute adingabeen kasuez ari garenean;
- prozesuen garapenean kontu handiz ibiltzea, baita biktima agertu beharko den bistak ere, eman daitekeen balizko kalteak txikitzeko. Ume txikiez ari bagara euren kontaktua aparatu judizialarekin ahalik eta txikiena izan behar da.

.- Komunikabideei galdegin. Ikusita, lehen esan dugu bezala, ez direla komunikabideak izango euren kabuz abusuen gaia jorratuko dutenek, hau berau galdegin behar zaie euren agendetan sartu dezaten. Eta, aldi berean, eskatu beharko zaie hau egin dezaten ez bakarrik deskripzioaren eta testigantza aldetik, baita hausnarketan oinarritutako ikuspegi sakon batetik, pertsona adituen eta arazoa gainditzeko gaitasunaren adibide direnen pertsonen ekarpenei ateak zabalduz. Eta beti honen eragina pairatu dutenekiko errespetu osoz, epai prozesuak oztopatu barik eta lasaitasunez, eskandaluari eta morboari espazioa utzi barik. Komunikabideek ere jakin behar dute adingabeak eskubide subjektuak direla, eta bere interesak eta babesa saildu beharreko ondasun garrantzitsuak direla beste gauza guztien gainetik.

.- Hezkuntza sistemari errekurtsioak eman. Irakasle goiari galdegin bere bermatzaile papera onartu dezan, ikasle goiari bere jardueraren eta arduraren inguruko hausnarketa sakona sustatuz. Horretarako, sostengatua sentiarazi behar da beharko lituzkeen errekurtsio nahikoak emanez, bai detekzio funtzio, zein funtzio hezitzaileari begira, formazio espezifikoa emanez, detekzioarako eta salaketarako prozesuak erraztuz, ikasle goiari konfiantza eremuak zabaltzen lagunduz, nahiz eta eskakizun akademikoak jaitziera bat ekartzen badu ere, bizitzarako hezkuntza eta hezkuntza sexuala tutoretza lerro bezala txertatuz, orientazioa taldeekin eta gizarte zerbitzuekin elkarlana erraztuz, HSA adituak direnen laguntza profesionalak ezarri...

.- Detekzio goiztiarra erraztu. HSA, larriak badira ere, beste indarkeria mota batzuk baino pronostiko hobea izan dezakete azkar aurkitzen eta mozten badira. Gomendagarria da, beraz, detekzio goiztiarra ematea, adingabea abusuaz kontziente ez denean baldin bada hobeto, edo lehenengo ataletan. Zenbat eta helduen izan pertsona, edo beranduago topatu arazoa, zailagoa izango da biktimarentzat esperientzia traumatikoaren lanketa prozesua. Etxeen intimitateetan sartzeari dagoen beldurra galdu behar da eta arazoaren detekzio goiztiar bat egin ahal izateko hurbilen dauden profesionalen formazio komenigarri bat eman.

.- Mugimendu sozialei babesa eman. Edozein eremutan mugimendu sozial bat existitzea arazoaren ikusarazteko bermea izan ohi da, baita instituzioek hau konpontzeko beharrezko mugimenduak burutu ditzaten presioa egitearena. HSAren kasuan, ez da mobilizazio gaitasuna duen inongo mugimendu sozialik existitzen, horregatik komenigarria litzateke hau martxan jartzea.

- Esku-hartzearekiko laguntza areagotu. Gaur egun HSaren inguruan ematen den esku-hartzea murrizta da eta bere osotasunaren parte bat besterik ez du hartzen. Komenigarria litzateke muturreko babesgabetasun egoeretatik harago joatea, beste eremu batzuetara -famiakoak eta famiakoak ez direnak-, itxuraz normalak direnak eta babesgabetasuna hain nabarmena ez denean. Komenigarria litzateke ere tratamenduan eta detekzioa formakuntza egokia duten profesional adituen gehikuntza, baita detekziotik hasita eta epaiketara arte prozedimendu argiak ezartzea, hauek azkartzeko eta adingabeekiko laguntzetan eraginkorrakoak izatea. Ezinegona kudeatzeko tresnak ere bideratu beharko lirateke. Osasuneko langileria, irakasleagoa, epaitegietako langileak, famiako kideak, lagunak, terapeutak... abusu kasu batean parte hartzen duten guztiek ezinegona pairatzen dute maila batean edo bestean arazo hau ezagutzen dutenean. Eta ezinegonak esku-hartzea baldintzatzen du, hutsegitera eta ukaziora eramanez.

- Biktimarekiko arreta handiagoa. Biktimarentzako uzten dugu azken espazioa hau. Esaten denaren arabera, guztiz ahaztuta egon da beti, honek bere horretan jarraitzen duelarik. Horregatik, administrazioaren blokean esan genuen horretan sakonduz, biktimarekiko arreta prozesuak hobetzea ezinbestekoa da, terapiak gizarte segurantzak estali beharko litzateke ere esanez. Nola edo hala, esku-hartzearen erdigunea izan dadin galdegiten da. Helburua, biktima izatetik pertsona izatera itzuli dadila izan beharko luke. Horretarako babes zerbitzuak modu egokian ibili daitezten eta indarkeria kateak eta bigarren mailako biktimizazioak ekiditeko mekanismoak ezarri daitezten beharrezkoa da, esperientziak, sufrimenduak eta aurrerapausoak elkartrukatzeko espazioak bideratzea, biktima askatasunez eta epaitua eta seinalatua izateko beldur barik hitz egiteko libre, babestuta eta seguru sentituko den espazioak. Biktima eskubide subjektua ere bada, eta horrela estimatua izan behar da.

Bibliografia

- Abuso sexual infantil no. Erabilgarria www.abusosexualinfantilno.org helbidean.
- Acosta, O. y Ortega, E. (ekoizlea). Estepa, J. P (zuzendaria) (2011). Infancia rota (dokumentala). Espainia.
- Baita, S. y Moreno, P. (2015). Abuso sexual infantil. Cuestiones relevantes para su tratamiento en la justicia. Erabilgarria www.unicef.org/uruguay/spanish/Abuso_sexual_infantil_digital.pdf helbidean.
- Benavente B., Casado S., Orte C. y Ballester, L. (2016). Prevalencia del abuso sexual en la infancia. Un estudio en estudiantes universitarios. Bartzelona. Editorial Octaedro.
- Castaños, A. (2016). ¿Se cura la violencia? La búsqueda de la des-violencia. Bilbo. Beta III Milenio.
- Derecho Civil. Erabilgarria www.infoderechocivil.es/2015/04/prescripcion-definicion-fundamento-prescripcion-civil-penal-tributaria-concurso-acreedores.html helbidean.
- Derecho en Red. Erabilgarria www.derecho-en-red.com helbidean.
- Echeburúa, E. y Guerricaechevarría, C. (2000). Abuso sexual en la infancia: víctimas y agresores. Un enfoque clínico. Col. Estudios sobre violencia. Bartzelona. Editorial Ariel, S.A.
- Echeburúa, E. y de Corral, P. Secuelas emocionales en víctimas de abuso sexual en la infancia. Erabilgarria <http://scielo.isciii.es/pdf/cmfn43-44/06.pdf> helbidean.
- Enciclopedia jurídica. Erabilgarria www.encyclopedia-juridica.biz14.com/d/prescripcion/prescripcion.htm helbidean.
- Folleto Informativo Sobre el Abuso Sexual Infantil. Erabilgarria www.nctsn.org/sites/default/files/assets/pdfs/ChildSexualAbuseFactSheetFINAL_SP.pdf helbidean.
- Galdós, S. Prevención del abuso sexual infantil. Erabilgarria www.contraelabusosexualdelainfancia.com/art2.htm helbidean.
- Galtung J., (2003), Violencia cultural, Gernika Gogoratuz documento 14, de la edición en ingles: Journal of Pace Research, volumen 27, nº 3, pág. 291- 305. Gernika. Gernika Gogoratuz.
- Gil, J., Sánchez, A. R., Cosano, I., Espinosa J. M., Torró, C., Llamas, M. V. y García, P. Protocolo de intervención sanitaria en casos de maltrato infantil. Erabilgarria www.redsabria.org/file.php?file=%2F1%2FProtocolo_Maltrato_Infantil_v8_DEFINITIVO_PUBLICADO.pdf helbidean.

- González, R., Labio, A. y Manfredi, A. (2009). Medios de comunicación y protección a la infancia en contextos de crisis humanitarias. Sevilla. Save the Children.
- Hernández, R. y Perkins, M. (2010). Infancia y medios de comunicación, recomendaciones para el tratamiento de la infancia en los medios de comunicación. Save the Children y UNICEF.
- Horno, P., Santos, A. y del Molino, C. (2003). Abuso sexual infantil. Manual de formación para profesionales. Madrid. Save the Children.
- Interbi, I. V. Valoración de sospechSA de abuso sexual infantil. Erabilgarria www.fapmi.es/imagenes/subsecciones1/1de5_Doc_01_Presentación_Maquetado.pdf helbidean.
- Interbi, I. V. Estrategias y modalidades de intervención en abuso sexual infantil intrafamiliar. Erabilgarria www.serviciossocialescantabria.org/uploads/documentos%20e%20informes/Estrategias%20y%20modalidades%20de%20intervencion%20en%20abuso%20sexual%20infantil%20intrafamiliar%20%20Marzo%202012.pdf helbidean.
- Iráizoz, S, y Oria, P. (ekoizleak). Armendariz M. (zuzendaria) (2011). No tengas miedo (pelikula zinematografikoa). Espainia.
- La Parra, D. y Tortosa J. M. (2003) Violencia estructural: una aproximación del concepto. Documentación Social nº 131, pág. 57- 72. Alikante. Grupo de Estudios de Paz y Desarrollo. Universidad de Alicante.
- López, F. (1996) Abusos sexuales a menores. Lo que recuerdan de mayores. Madrid. Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales.
- Manifiesto "Abuso sexual infantil: un problema social". Erabilgarria www.fbernadet.org/manifiesto/?idioma=CAT helbidean.
- One in five/ Un sur cinq. ¿A qué nos referimos cuando hablamos de Abuso sexual infantil y adolescente? Erabilgarria <http://www.serviciossocialescantabria.org/uploads/documentos%20e%20informes/sospechSAAbusosInfantil.pdf> helbidean.
- Pereda, N. Consecuencias psicológicas iniciales del abuso sexual infantil. Erabilgarria www.papelesdelpsicologo.es/pdf/1702.pdf helbidean.
- Ruiz-Villar, A. (ekoizlea). Sistiaga, J. (zuzendaria) (2016). Infancias robadas. Capítulos "Expiación", "Perversión", "Duelo" y "Monstruo" (dokumentala). Espainia.
- San Martín J., (2000). Violencia contra los niños. Barcelona. Editorial Ariel.
- Save the Children (2007). Secretos que destruyen. Cinco seminarios Europeos sobre Abuso y Explotación Sexual de Niños/as. Erabilgarria https://www.savethechildren.es/sites/default/files/imce/docs/secretos_que_destruyen.pdf helbidean.
- UNICEF (2011). Guía Clínica: Atención de Niños, Niñas y Adolescentes Menores de 15 años, Víctimas de Abuso Sexual. Ministerio de Salud de Chile. Fondo de las Naciones Unidas para la Infancia.
- Wikipedia. Erabilgarria https://es.wikipedia.org/wiki/Abuso_sexual helbidean.
- Wikipedia. Erabilgarria <https://es.wikipedia.org/wiki/Pedofilia> helbidean.
- Wikipedia. Erabilgarria https://es.wikipedia.org/wiki/Abuso_sexual_infantil helbidean.
- Wikipedia. Erabilgarria <https://es.wikipedia.org/wiki/Parafilia> helbidean.
- Wikipedia. Erabilgarria <https://es.wikipedia.org/wiki/Grooming> helbidean.

Eranskina. Solas gida

- 1.- Arazoaren agerpena
 - Hurrenganako sexu abusuak agertzea errazten duten faktoreak.
 - Tratu txar mota hau gehien ematen diren eremuak.
 - Beste indarkeria batzuekiko harremana.
- 2.- Haurtzarora gizartean duen papera
 - Haurtzarora gizarte subjektu bezala: ematen dizkiogun balioa eta papera.
 - Haurtzaroaren sexualitatearen ukapena.
 - Adingabeari ematen zaion sinesgarritasuna.
 - Haurtzarora gizarte subjektu ikusezin bezala.

3.- Eremu pribatutik publikora: arazoaren ikusaraztea

- .- Arazoa ikusarazteko arrazoiak.
- .- Isiltasuna errazten duten faktoreak.
- .- Noren mesedetan doa isiltasuna.
- .- Nori dagokio erantzukizuna.
- .- Abusu egoera bat salatzerako orduan agertzen diren beldurrak: biktimak, pertsona hurbilak, eremu ezberdinetako profesionalak eta biztanleria orokorren.
- .- Zelan egin abusua gai pribatu bat bezala ikustetik gai publiko bat bezala ikustera pasatzeko.

4.- Familia abusuaren testuinguru bezala

- .- Abusua eta isiltasuna errazten duten familia barneko faktoreak.
- .- Tratu txarra salatzen ez denean erantzule.
- .- Familiaren gizarte mailako ulermena gaur egun eta bere harremana abusuarekin.

5.- Gizartea eta erakundeak

- .- Hurrenganako sexu abusua ohiko errealitatea dela onartzeko erresistentziak: zeintzuk eta zergatik ematen dira.
- .- Biktimari errua egozteak: noiz eta zergatik eman da.
- .- Biktimak egoeratik irtetea zailtzen edo errazten duten faktoreak.
- .- Administrazio publikoetako arduradunak abusuaren aurrean.
- .- Abusuaren aurreko jarrerak eta erantzukizunak: biktimak, pertsona hurbilak, eremu ezberdinetako profesionalak eta biztanleria orokorren.

6.- Abusua eta justizia

- .- Justiziaren papera
- .- Hurrenganako sexu abusu kasuen aurreko protokoloak eta funtzionamendua.
- .- Zigorraren eta abusu jarreraren gutxitzearen arteko harremana.
- .- Abusu delituaren preskripzioa.
- .- Zigorgabetasun presuntzioa versus biktimaren sinesgarritasuna eta erreparazioa.
- .- Zigorren luzatzea abusu kasuetan.
- .- Erasotzailearen seinalamendu publikoa.

7.- Komunikabideak

- .- Hurren babesarekiko komunikabideek jokatu beharreko papera.
- .- Adingabeen harremana komunikabideekin.
- .- Nola jorratzen dute komunikabideek haurtzarora orokorren eta sexu abusuak bereziki.
- .- Gaia informazio objektu bezala duen maiztasuna.
- .- Jarraipena.
- .- Birbiktimizatzen al dute komunikabideek?

8.- Hezkuntza

- .- Sexualitatearen erakuntza egungo gizartean, hezkuntza sexuala eta abusua.
- .- Hezkuntza sistemaren papera.

9.- Prebenitu eta ekin

- .- Prebentziorako neurri zehatzak
- .- Pertsona abusatzailearen aurreko neurri zehatzak.
- .- Birbiktimizazioa ekiditeko eta biktima bere egoeratik irteteko neurriak.